# ttipi ttapa

390

2005ko urtarrilaren 27a • XXV. urtea



## Euskalgintzarako diruak murriztu

03

Nafarroako Gobernuak %40an murriztuko ditu aurten euskalgintzarako dirulaguntzak. Bortzirietako IKA Euskaltegikoek eman digute egoeraren berri.



## Etxeko hondakin berezien bilketa

04

Bortziriak, Malerreka eta Baztanen etxeko hondakin berezien abiatuko da otsailetik aitzinera. Emauseko Traperoek kamioi egokitua erabiliko dute horretarako.

Miguel Mari URRUTIA

# Txapel handia Saldiasera

32



# EUSKARA!

EGUNERO... DÍA A DÍA

**Otsaileko matrikulazioa**

Izena emateko:

- Bortzirietako Euskaltegia - 948 637796
- Malerrekako Euskaltegia - 948 451555
- Leitzaldeko Euskaltegia - 948 610776

ika

IKASTEN
15 URTE
IRAKASTEN

DEITU OTSAILAREN 11
BAINO LEHEN



## MUEBLES AMETS



larunbat
arratsaldetan
irekia

4000 m² erakusketa

**Sarrera
BERAtik da**

*Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga*

**31789 LESAKA**

*Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443*

BISITATU GURE
WEB ORRIA
**www.mueblesamets.com**



- *Sukaldeak*
- *Egongelak*
- *Logelak*
- *Bainugelak*



## DATUAK...

- Nafarroako Gobernuak euskararendako dirulaguntzak %40 murriztuko ditu aurten. Hori dela eta, eskualdeko hainbat gizarte erakunde eta euskalgintzako enpresa egoera larrian geldituko dira.

- Bortzirietako IKA euskaltegian, ikastola eta komunikabideetan bezala, modu ezberdinak bilatu beharko dituzte aurrekontua aitzinera ateratzeko.

- Beñardo Goietxe, Mentxu Peña eta Igor Portuk eman digute egoeraren berri.


ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI
Bortzirietako IKA Euskaltegia

# «Hirutik batera murriztu da Nafarroako Gobernuaren urteko dirulaguntza»

Joseba OLAGARAI

**Nola eraginen du euskaltegietan Nafarroako Gobernuak 2005erako aurreikusi duen dirulaguntzaren murrizketak?**

Dirulaguntza hirutik batera jautsiko da, murrizketa nabaria da. Iaz euskaltegiek 529.000 euroko dirulaguntza izan bazuten, aurten 180.000 eurokoa izanen da. Murrizketa handi horrek eragina izanen du gure funtzionamenduan. Diru-iturri eta finantziabide garrantzitsua ixten zaigu eta funtzionamendurako dirua behar dugu.

**Dirulaguntza guttiagorekin nola eginen duzue aitzinera? Nola emanen diozue buelta egoera berriari?**

Aitzinera nola eginen dugun ez dakigu, hori denborarekin ikusi egin beharko da eta oraintxe ari gara horretan pentsatzen. Kontua da guk hiru diru-iturri nagusi ditugula euskaltegian: alde batetik, ikasleak berak ordaintzen duen matrikula, bertze aldetik mankomunitateak ematen digun dirulaguntza eta azkenik, Gobernukoa. Gobernuak ematen diguna hirutik batera murrizten bada, ikasleek ordaintzen dutena eta mankomunitateak ematen duena gelditzen zaigu. Faltako den zati horri nola eginen diogun aitzinera IKA guziak eta AEKk, denok elkarrekin aztertu eta ikusi beharko dugu. Diru hori lortzeko zein neurri hartu behar diren aztertu beharko dugu, gainera ez baitakigu aurtengo kontua izanen den edo ez. Urte bateko kontua izanen balitz nolabait diru hori ateratzen saiatuko gara nonahitik, baina luzerako baldin bada ikusiko dugu. Nafarroako Gobernuak egin beharko lukeena, eta egiten ez duena, udalek hartzen dute bere gain, Mankomunitatean bortz herriak sartuak baitaude. Beraz, murrizketa hau herritar guztioi egiten zaigun kaltea da.

> «Nafarroako Gobernuak egin beharko lukeena eta egiten ez duena, udalek hartzen dute bere gain. Beraz, murrizketa honek herritar guztioi eragiten digu»

**Orain arte zenbateko dirulaguntza jasotzen zenuten?**

Zenbateko zehatza zaila da ematea baina ikasle-orduko kopuru bat ematen zuten, normalean eurora ere ailegatzen ez zena. Baina diru saila kopuru batera ailegatzen da eta IKA eta AEKko euskaltegien artean banatu behar da. Ikasle gehiago baldin badaude diru kopurua ez da igotzen.

**Matrikulazio kanpaina ere ireki duzue otsailerako...**

Bai, urtero bezala bigarren matrikulazio kanpaina irekiko dugu urtarrilaren 28tik otsailaren 11ra. Maila guztiak eta EGA eskaintzen ditugu, euskara ikasi eta hobetu nahi duen guztiarentzat.

**Etorkinekin ere lan egiten duzue...**

Bai, bertze edozein ikasle bezala hartzen ditugu. Badugu etorkinen bat edo bertze, baina talde ezberdinetan banatuak daude, normalean beheko mailetan. Aurten lauzpabortz etorkin baditugu, joan den urtean talde berezia ere izan genuen eta talde hartatik batzuk segitu dute eta bertzeak ez dira animatu. Normalki gaztelania menperatzen dutenez, edozein ikasleren prozesua egiten dute, zerotik hasten den hemengo edozein ikaslek bezala.




| Ba | Ba | Ba | M | M | M | Bo | Bo |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **BAZTAN** | **BAZTAN** | **BAZTAN** | **MALERREKA** | **MALERREKA** | **MALERREKA** | **BORTZIRIAK** | **BORTZIRIAK** |
| Elizondo (Merkatuko Plazan 9:00-12:00)<br>Irurita (Plaza de la duquesa Goyeneche 12:10-13:00)<br>Ziga (13:10-13:30)<br>Aniz (13:40-14:00)<br>Berroeta (14:10-14:30)<br>Almandoz (14:40-15:00) | Elizondo (Merkatuko Plazan 9:00-12:00)<br>Gartzain (12:10-12:45)<br>Lekaroz (12:55-13:30)<br>Arraioz (13:40-14:15)<br>Oronoz (14:25-15:00) | Elizondo (Merkatuko Plazan 9:00-12:00)<br>Arizkun (12:10-12:45)<br>Erratzu (12:55-13:30)<br>Amaiur (13:40-14:15)<br>Azpilkueta (14:25-15:00) | Sunbilla (Elizaren aurrean 9:00-10:00)<br>Doneztebe (Bordatxoko aparkalekuan 10:10-12:00)<br>Donamaria (12:15-12:35)<br>Gaztelu (12:45-13:10)<br>Legasa (13:20-14:00)<br>Narbarte (14:10-14:30)<br>Oieregi (14:40-15:00) | Sunbilla (Elizaren aurrean 9:00-10:00)<br>Doneztebe (Bordatxoko aparkalekuan 10:10-12:00)<br>Elgorriaga (12:10-12:30)<br>Ituren (12:40-13:00)<br>Zubieta (13:10-13:30)<br>Eratsun (13:50-14:15)<br>Ezkurra (14:30-15:00) | Sunbilla (Elizaren aurrean 9:00-10:00)<br>Doneztebe (Bordatxoko aparkalekuan 10:10-12:00)<br>Oitz (12:10-12:30)<br>Urrotz (12:40-13:00)<br>Beintza (13:20-13:40)<br>Labaien (13:50-14:10)<br>Saldias (14:30-15:00) | Bera (Institutuko aparkalekuan 9:00-12:00)<br>Etxalar (Plazan 12:20-13:30) | Lesaka (Plazan 9:00-11:30)<br>Igantzi (Frontoian 11:45-12:45)<br>Arantza (Plazan 13:00-14:00) |

BORTZIRIAK, MALERREKA ETA BAZTANEN

# Etxeko hondakin berezien bilketa abiatuko da otsailetik aitzinera

**Bilketa honetarako bereziki egokitua den kamioia ibiliko da egun jakin batzuetan herriz-herri. Herri bakoitzari dagokion eguna eta ordua jakiteko, etxe guztietara egutegia banatuko da. Komeni da egutegi hori begibistan atxikitzea urte osoan, duen informazioaz gain, bidai baten zozketan sartuko den zenbakia idatzita izanen duelako. Modu honetara saritu nahi da herritarren kolaborazioa.**

**Pilak, beirazko ontziak, enbaseak, etxe eta komertzioetako paper eta kartoiak, neurri handiko trasteak eta siloetako plastikoak biltzen dituzte jada Emauseko Traperoek. Orain, otsailetik aitzinera, sukaldeko olioa eta etxeetako hondakin bereziak ere bilduko dituzte.**
**Bereziki egokitua den kamioia erabiliko dute azken honetarako.**

J. IRIGOIEN

Ez da erraza zifrak ematea, baina generalean, hondakinen sorrera Barne Produktu Gordinarekin zuzenean erlazionaturik dagoela ageri da eta, beraz, zenbat eta BPG handiagoa, orduan eta zabor gehiago sortzen da. Zifra orokorren arabera, ipar amerikar batek egunean bi kilo zabor sortzen ditu; hau da, Europako eta Japoniako batezbestekoa baino bat gehiago. Bistan denez, garatu gabeko herrialdeen kontsumo urriak hondakin gutiago izatea eragiten du: 100 eta 500 gramo bitarte egunean pertsonako. Eta horrekin batera kontuan izan behar da gaur egun 6.000 milioi lagun bizi garela Lurrean eta hori kopuru kezkagarria dela. Eta arazoa ez da hor bukatzen! Etxeko zaborretatik datozen hondakinei industriak sortzen dituenak gehitu behar zaizkie: guti gora-behera, Japonian langileko 8 kilotik gora sortzen da egunean, hau da, etxean baino zazpi kilo gehiago.

Kontuak horrela, zaborrera joaten dena murriztea izan behar du-

gu helburu, eta erabili eta botatzekoak diren materialik (edalontzi, plater eta poltsarik) ahal dela ez erosi, pakete gehiegi dutenak saihestu eta ontzi familiarrak hautatzea, produktu fresko eta pisura saltzen direnak erostea, eta ontziak, arropa, liburuak, altzariak edo jostailuak berrerabili edo trukatzea.

Horrekin batera, ingurumena modu egokian babesteko, zaborren tratamenduak eta birziklatzeak berebiziko garrantzia du. Exenplu modura, tona bat paper birziklaturekin 15 zuhaitz heldu botatzea ebitatzen da.

### Jendearentzat eskurago eta guztiontzat merkeago

Herri ttiki ugari eta eremu geografiko zabala dugula kontuan hartuta, zailagoa eta garestiagoa litzateke hondakin bereziak biltzeko han eta hemen bizpahiru biltegi antolatu eta mantentzea. Horregatik, hiri handietan prestatzen diren *puntu berde* edo *garbiguneen* modeloa alde batera utzita, etxeko hondakin bereziak biltzeko egokiena kamioia dela pentsatu dute udal agintariek. Manera horretan, zerbitzu berri hau jendearentzat eskurago jartzea bilatzen da, eta bidenabar, gestio gastua merketzea. Eta itxura denez, sistema berri honek jakinmina sortu du egoera berdintsuan dauden bertze eskualdeetan.

### Orduak eta egunak markatuta dituen egutegiak banatuko dira etxe guztietara

Ondoko koadroan ikusiko duzuenez, 8 ibilbide desberdin antolatu dira sukaldeko olioa eta etxeko hondakin bereziak biltzeko; Baztanen hiru ibilbide, Malerrekan bertze hiru eta Bortzirietan bi. Beti ere, larunbat goizetan ibiliko da kamioia herriz herri, eta herri bakoitzari dagokion eguna eta ordua zuzen jakiteko, etxe guztietara paretan jartzeko egutegi bat bidaliko da. Komeni da egutegi hori begibistan zintzilikatzea, duen informazioaz gain, 2 lagunendako bidai baten zozketan sartuko den zenbakia idatzita izanen duelako.

## EMAUSEKO TRAPEROAK

**José María GARCIA BRESÓ, Koordinatzailea:**

# Birziklatze lana etxean hasten da, eta ongi egiteko, behar beharrezkoa da jende guztiak parte hartzea

Joan den abenduan erabaki zuten udal agintariek zein izanen den zerbitzu berri honen kudeaketaz arduratuko den enpresa. Mahai gainean zeuzkaten bi proposamenak aztertu ondotik, Emauseko Traperoekin sinatu dute hurrengo hiru urteetarako kontratua. Hondakin organikoak izan ezik, gainerako hiri-hondakin guztien bilketaz arduratuko dira, eta urteko 225.147 euroko kostea izanen du horrek.

### Herriz-herri pasatuko da kamioia etxeko hondakin bereziak biltzeko

Horixe da, hain zuzen ere, zerbitzu berri honek bertze tokitan egiten denarekin konparatuz izanen duen berezitasuna. *«Puntu finko bat antolatu beharrean, puntu mugikorra izatea dela egokiena»* hobetsi baita. Kamioi berezia da, propio prestatua, eta hondakin berezien bilketa egiteko ez ezik, igloo-edukiontziak garbitzeko ere erabiliko da. *«Ez dugu beste inon ere ikusi funtzio hauek izanen dituen beste kamioirik. Horregatik, gure beharretarako bereziki egokitua den kamioia prestatu da. Izan ere, Bortziriak, Malerreka eta Baztango bilketa zerbitzu hau aitzindaria izanen da Nafarroan eta inguruko herrialdeetan»* azaldu digu José María Garcia, Emauseko Traperoen koordinatzaileak. Kamioi honekin, *«bilketa zerbitzu berri hau eraginkorragoa izanen da, jendeak ez baitu hondakin hauek herri batetik bestera eraman ibili beharrik izanen, eta beraz, bilketa egokiagoa egitea espero dugu. Eta aldi berean, kamioi hori bera prestatua egonen da igloo-edukiontziak kanpotik eta barnetik garbitzeko ere. Gisa hortara, inbertsioei etekin handiago ateratzeko manera bilatu zaio»* azpimarratu du .

**ZER DAGO GURE ZABOR-ONTZIAN?**






(*) **Bestelakoak**: pilak, plastiko eta metal hondarrak, neurri handiko trasteak, hondakin bereziak...

### Arriskutsuak eta kutsakorrak diren produktuez inguratuak bizi gara

Pinturazko produktuak, disolbatzaileak, garbikariak, esprai enbaseak, autoen bateria zaharrak, pilak, fluoreszenteak... arriskutsuak eta kutsakorrak dira, *«ez bakarrik naturarentzat, baita gure osasunarentzat ere. Guztiok horretaz kontzientzia hartzea arras inportantea da, hondakin desberdinak elkarrekin nahastu gabe biltzea bezain inportantea* –ohartarazten du–. *Gure ingurumenaren jabe izateko ordua dugu noiznahi!»*

Hondakin hauek, kudeaketa-baimena duten enpresen esku utziko dira. Sukaldeko olio zaharra Ecograsi eramanen zaio, eta enpresa horrek biodiesela egiten du gero olio horrekin. *«Gure esku egonen da hondakinen gestore horiek bilatzen laguntzea* –dio José M. Garciak–. *Dena den, hasiera batean bilduko den gehiena ontziak izanen direla pentsatzen dugu».*

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Comission Paritaire:** En cours
**Tirada (Tirage):** 6.000

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
**ttipi-ttapa@ttipi.net**

**Argitaratzailea (Editeur):** ttipi-ttapa fundazioa. **Presidentea (Président):** Pello Apezetxea. **Kudeatzailea (Gérant):** Joxemanuel Ingoien. **Zuzendaria (Directeur de publication):** Aitor Arotzena. **Publizitatea (Publicité):** Kulturkari, SLU **Administrazioa (Administration):** Amaia Goia. **Berriemaileak (Collaborateurs):** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Pello Zestau, Iban Isasi, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Saski, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Aintzoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Arrigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea...
**Inprimategia (Imprimeur):** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak (Avec la participation de):** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 28 € |
| Espainia | 28 € |
| Ipar Euskal Herria | 40 € |
| Europa | 40 € |
| Amerika | 108 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza | 23 € |

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**

**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du**

# • IRAKURLEAK MINTZO •

## Osasun Zerbitzua eta euskara

Herri euskalduna dugu Leitza, nagusiki euskaraz bizi dena. Euskaraz bizitzeko ahalegina aspaldikoa da hemen, eta begi-bistakoa da gainera: Leitzako Udala UEMAko partaidea da, eskolan eta institutuan ikasle guztiek euskaraz ikasten dute, bertako komunikabideak (irratia eta aldizkariak) euskaldunak dira, herrian antolatzen diren ekitaldi publiko ia guztiak euskaraz egiten dira...

Eguneroko bizitzan euskara erabiltzen dugu, beraz, eta horretarako eskubide osoa dugu. Zoritxarrez, ahaleginak ahalegin, zenbait tokitan eta momentutan euskara erabiltzeko eskubide hori urratu egiten zaigu. Oraingoan, esaterako, osasun zerbitzuan; izan ere, Leitzako osasun etxean mediku erdalduna dugu, eta, jakina, ezin dugu berarekin euskaraz egin. Ba omen dugu administrazioarekin euskaraz egiteko eta euskaraz atendituak izateko eskubidea, baina praktikan ezin dugu. Eta urraketa hori salatzea da idatzi honen helburua, hain zuzen ere.

Garbi utzi nahi dugu, nolanahi ere, salaketa hau ez dugula osasun zerbitzuko langile batengana zuzentzen. Hizkuntza eskubideak urratzea, kasu honetan bederen, administrazioko eta Osasunbideko arduradunen erantzukizuna da, haiek baitira deialdiak egiten dituztenak eta lanpostuen hornikete antolatu eta erabakitzen dutenak. Lanpostu jakin baten inguruan ari gara, baina ez pertsona jakin baten inguruan.

Arazoa, labur azalduta, honakoa da: Leitzako osasun etxean lanean ari diren medikuetako bat erdalduna da, eta ezin ditu herritarrak euskaraz atenditu. Horrek bi eratako ondorioak dauzka, gutxienez:

1.- Hizkuntza eskubideen urraketa: medikuarekin euskaraz egin nahi duten herritar guztiei eskubide hori zapuztu egiten zaie; nahiz eta legeak berak onartutako eskubidea izan, ezin da praktikan gauzatu.

2.- Komunikazioaren kalitatea eta ziurtasuna: Leitzako herritar gehienen lehen hizkuntza euskara da, eta huraxe da komunikatzeko ziurtasun eta erraztasun handiena ematen diena. Batzuen kasuan (adineko zenbait pertsona eta haurrak) ia hizkuntza bakarra da. Kontuan izanda medikuarekiko harremanetan ahozko komunikazio ona oinarrizkoa dela, medikua erdalduna izateak arazoak sor ditzake: ongi adierazi ezina, deserosotasuna, gaizki ulertuak...

Hainbeste urtez eta hainbeste aldiz osasun zerbitzu euskalduna eskatu ondoren, ulertezina gertatzen da gaur egun, oraindik ere, horrelakoak jasan behar izatea. Ez dugu deus berezirik eskatzen, ez dugu besteak baino gehiago izan nahi. Besterik gabe, erdaldunek duten eskubide berbera nahi dugu: gure medikuarekin gure hizkuntzan hitz egin ahal izatea, eta gure hizkuntzan atendituak izatea.

Gertaera larria iruditzen zaigu, eta larritasun horrekin salatu nahi dugu. Horretaz gain, Osasunbideko arduradunei berehalako konponbide bat aurkitu dezaten eskatzen diegu.

**Leitzako Euskara Batzordea, Denok Bat Guraso Elkartea, Amazabal Guraso Elkartea, Karrape Irratia, Euskal Herrian Euskaraz, Kultur Taldea, Aurrera Elkartea, IKA Euskaltegia, Euskara Zerbitzua**

## Europar Batasuneko konstituzioari ez!

Europar Batasunaren historia interes ekonomiko eta politiko zehatzak dituen prozesu bati loturik burutu dela jakina den gauza da. Eta jakin ere badakigu interes horien funtsa zein den: Herri eta herritarren bizkar, boteretsuak indartzea, etekinak pilatzen jarrai dezaten. Hala, hasieratik ageri zena guztiz nabarmena da gaur egun, alegia, prozesu hori ez dagoela bideratua ez egungo estatuak indargabetzera, ez eskubide sozialak garatzera ere, alderantziz baizik. Batetik estaturik gabeko nazioak ukatu eta bertzetik neoliberalismoa bultzatzen baita.

Zentzu horretan, adierazgarria da Madril eta Parisetik bezala Bruselatik ere inposaketarako egiten den hautua. Nekazaritzan adibidez, baserritarrei hitza eman ere egin gabe, hemen zer, zenbat eta nola produzitu behar den erabakitzeko irizpideak jaunttokeriz finkatzen dira moderno deitzen diren instituzioetan. Eta berdin arrantzan edota industrian.

Halaber, adierazgarria da Europar Batasuneko erabaki anitz errepresioarekin lotuak izatea ere: "euroagindua", "eurogorputza"...

Orain ordea, eraiki duten egitura hori herritarrok urrun sentitzen omen dugulako kezkaturik ageri dira batzuk eta hortxe dabiltza, bertzeak bertze, Zapatero, Chirac eta Mayor Oreja euren neurrira eginiko konstituzioaren ustezko ontasunak zabaldu nahian. Imaz eta Ibarretxe bezalakoen laguntzarekin, bertze gauzen artean Euskal Herria eta euskara ukatzen dituen konstituzioa goratzen...

Honen aitzinean, gure eskubide nazional eta sozialei eragiten dien neurrian, garrantzitsua den gaia dela barneratu eta herri-erantzun sendo bat eman behar dela uste dugu. Hortaz, otsailaren 20an sasi-mugaren hegoaldean eta geroago sasi-mugaren iparraldean burutuko diren erreferendumak baliatu eta ezezko bozka emateko beharra aldarrikatzen dugu.

**Berako Ezker Abertzalea**

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



D. Noticias 2005-01-08

*«Nik ez nekien dantza estudiatzen ahal zenik eta orai sartu naizela, ez nintzatekeen sekula aterako».*
*«Dantza konpainian arras giro ona genuen, jendea oso jatorra zen, oso sanoa. Gauza txar bakarra janaria zen. Ingalaterran nahiz Irlandan arras gaizki jaten da, baita herrietan ere; behin hemengo landa etxeen gisakoa den bed and breakfast batean lo egin genuen, eta dena erdi prestatua erosten dute… Ongi jatea faltan somatu dut».*

Iñaki URRUTIA
Baztango dantzaria
D. Noticias 2005-01-08

*«Egunero lau orduko zuzeneko irratsaio batean ez dago paperik, alegia, gure etorriaren %90 ez da idatzia, baina bai aurreikusia. Eta zin dagizut hamaika zalantza eta hanka sartze sortzen zaizkigula. Alde horretatik "euskara gazte eta lagunarteko" bat egitea oso konplikatua da. Sortu egin behar baita eta zentzu horretan egin gabe zegoen nahikoa lan egiten ari gara. Nire ustez Euskadi Gazteak baino euskarak berak ditu zuloak»*

Itziar ALDUNTZIN
Leitzako irrati esataria
AIZU 2005-01

## • 11 GALDERA LABUR •

**Amets bat?**
Futbolaren bidez bizi ahal izatea, kobratzea.
**Eguneko momenturik gogorrena?**
Goizean, despertadoreak jotzen duenean.
**Miresten duzun norbait?**
Edozein kirolari, Kovacevic.
**Etxetik urrun zaudenean faltan somatzen duzun lehendabiziko gauza?**
Familia eta lagunak.
**Mania bat?**
Ez dut mania handirik, baina entrenatzeko soberan dudan guzia kentzen dut, erlojua…
**Negar egin duzun azkeneko aldia?**
Euskadiko selekzioarekin finala galdu genuenean.
**Kirolariek ez omen dute besta egitea gustoko. Gezurra izanen da hori, ez?**
Bai, guziz gainera. Ezin dugu, baina gustatu gustatzen zaigu.
**Futbolaz aparte, bertze kirolen bat?**
Igeriketa.
**Zer egiten duzu partidu bat hasi aitzineko minutuan?**
Deus berezirik ez, partiduan kontzentratu.
**Gustora ezagutuko zenukeen munduko xoko bat?**
Leku aunitz zezagutzeko aukera izan dut. Thailandia gustatu zitzaidan.
**Kirolariek aunitz ligatzen dutela diote. Bai?**
Nere kasuan ez.



**Ane BERGARA**
*Berako futbol jokalaria*

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

ERRETIRATUAK

# Bainuetxeen programan parte hartzeko epea abudo itxiko da

## Urtarrilaren 31 baino lehen eman behar da izena

**ttipi-ttapa**

Nafarroako erretiratu eta pentsiodunei zuzendutako Hirugarren Adinerako Bainuetxeen aurtengo Programarako eskaerak aurkezteko epea urtarrilaren 31 arte irekia dago. Programa honetan parte hartzeko interesa dutenek, egun hori baino lehenago jo beharko dute beraien eskualdeko Osasun Zentrora, Oinarrizko Gizarte Zerbitzura edo Iruñean, Gizarte Ongizateko Institutuko erregistrora. Programari buruzko xehetasunak leku hauetan edo 012 telefonora deituz eskuratzen ahal da.



ARGAZKIA: EUSKAL HERRIA

**Fiteroko bainuetxean hamabi eguneko egonaldiarengatik 340 euro ordaindu beharko dute erretiratuek.**

Nafarroako Gobernuak, Ongizate, Kirola eta Gaztedia Departamentuaren bidez eskaintzen duen programa honetan 2.095 leku eskainiko dira. Erretiratu edo pentsiodunek, beraien senar-emazteekin Seron (Zaragoza), Arnedillo (Errioxa) eta Fiteroko bainuetxetara joateko aukera izanen dute. Zehazki, Fiteron 1.675 leku eskainiko dira, hamabi eguneko hamabortz txandatan banatuak, martxotik apirilera eta uztailetik azarora; Seronen 320 leku eskainiko dira, hamar eguneko bortz txandatan banatuak uztailetik irailera; eta Arnedillon, 100 leku eskainiko dira, hamar eguneko bi txandatan banatuak martxotik irailera. Iaz bezala, ehun leku gorde dira kasu berezietarako, hau da, beraien diru-sarrerengatik horrelako zerbitzuak ordaindu ezin dutenendako.

2005. urtean Nafarroako Gobernuak 409.000 euro bideratu ditu programa honetarako eta leku bakoitzaren %40a ordainduko du. Gainerako %60a erabiltzaileak berak ordaindu beharko du. Gisa honetara, leku bakoitzarengatik erretiratuak 326 euro ordaindu beharko du Arnedillon, 340 Fiteron eta 342 Seronen.

LANA

# Azken hiru urteotako langabetu kopururik handiena abenduan

Iazko abenduan %26,32 igo zen langabezia Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietan. Gisa honetara, 2002. urtetik langabezi kopuru kaxkarrenak ditu eskualdeak. Joan den urteko azken bi hilabeteetan 158 lanpostu galdu ziren eta urte akabailan 624 langabetuk izena emana zuten Doneztteben Nafarroako Enplegu Zerbitzuak duen bulegoan.

Hamar hilabetez etengabe jausten joan zen langabezia, baina azaroan 494 langabetura igo zen kopurua, urrian baino 28 gehiago, %6ko igoerarekin. Baina abendua oraindik makurragoa izan zen, eta kopurua 494tik 624 langabetura pasatu zen. Behin behineko kontratuak akautu direlakoz gertatu dela uste dute adituek.











BERA

# Iñauteriak otsailaren 3tik 7ra ospatuko dira

## Larunbatean kaldereroak etorriko dira iragarpena egitera

**Amaia eta Ainhoa**

Aurtengoan, iñauteriak otsailaren 3an hasi eta 7a bitartean luzatuko dira. Ortzegun Gizen egunean haurrak izaten dira protagonista. Goizean goiz mozorroak jantzi eta zingar arraultze eskean ibiltzen dira auzoz auzo. Arratsaldean, 15:15etan eguraldi ona bada, DBH1 eta DBH2ko haurrak, iñudeak eta artzaiak dantzatzen hasiko dira Herriko Etxeko Plazan ibilbidea hasiz. Eztegaran Lehen Hezkuntzako 3 eta 4. mailakoak eta haur konpartsa elkartuko zaizkie eta ibilbidea Errekalde Ostatu inguruan bukatuko dute. Ondotik merendua emanen zaie eta 17:00etan Kultur Etxean dantzaldia izanen da. Eguraldi txarra bada, 16:00etan Eztegara pilotalekuan haurren erakustaldia izanen da, iñude eta artzaiek dantzatuko dute eta ondotik merendua emanen zaie. Kultur Etxeko dantzaldia mantenduko da. Otsailaren 5ean, larunbatean, Kaldereroak etorriko dira iñauteriak iragartzera. Kasu honetan, eguraldi ona bada, Kaldereroak Herriko Etxeko Plazatik abiatu eta Altzateraino joanen dira, bertan bikote baten ezkontza ospatu eta baratxuri zopa dastatzeko aukera izanik. Eguraldiak ez badu laguntzen, aurreko urtean bezala ibilbidea hau izanen da: Ricardo Baroja Eskola-San Jose Zahar etxea- Altzate.

Igandean, goiz goizetik iñudeak eta artzaiak ibiliko dira herri guztian beraien kantuak eta dantzak eskainiz. Astelehena iñauteritako egun handia da eta goiz goizetik gazte eta helduak zingar arraultze eskean ibiliko dira. Arratsaldean, aldiz, 6etatik 10etara Sugarri Fanfarrea ibiliko da karrikak alaituz.



Argazkia: [illegible]

**N-121-A errepideari Nafarroako Gobernuak berehala heldu diezaiola eskatuz prentsaurrekoa eskaini zuen Aralarrek urtarrilaren 20an lamotenean. Jon Abril zinegotziarekin batera Txentxo Jimenez parlamentaria aritu zen solasean eta bezperan izandako istripu larria salatu zuten.**

### *Zahar etxeko kapera berrituak ateak ideki ditu*

Joan den urteko maiatzan hasi ziren Berako San Jose Zahar Etxeko kaperako moldatze lanak eta abenduaren 27an kapera berriak ateak ideki zituen obra bukatuta. Patxi Barandiaranek, bere anaia Pablo zahar-etxean egon zen bitartean hain ongi zaindu izana eskertzeko eta Maria Txoperena, bere emaztea zenaren borondatea betetzeko, 120.000 euro baino gehiagoko donazioa egin du eta diru horrekin kapera berritu da. San Jose zahar etxean 40 pertsona bizi dira eta Sara Velázquez arkitektuaren proiektuan oztopo arkitektonikorik ez izateak, han bizi direnei kaperara hurbiltzea errazten die. Kapera honetan egunero ospatzen da meza, astelehenetik larunbatera 18:30etan eta igandetan 9:00etan.

FLASH

### *Altzateko komertzioek 1.334.800 pezeta bildu dituzte*

Urtarrilaren 10ean bukatu da Altzateko komertzioek abenduaren 15ean martxan jarri zuten "Eurorik gastatu gabe erosketak Altzaten" kanpaina. Ekimen honen bidez edozein artikulu eurotan ordaindu beharrean pezetatan ordainduta, jendeak etxean gastatu gabe zituen pezeta horiek "aldatzeko" aukera eman zuten. Lehenengo aldia da horrelako kanpaina martxan jartzen dela eta Altzateko komertzianteek diotenez jende aunitzek egin ditu eguberritako erosketak pezetekin. Batez ere Gipuzkoa, Baztan eta Sara ingurutik etorri da jendea Altzatera erosketak egitera eta guztira, 1.334.800 pezeta (8.028 euro) bildu dira. Jendeak oraindik ere pezetak bazituela argi eta garbi gelditu da, denda batean pertsona batek adibidez 70.000 pezetatako erosketa egin baitzuen.

### *Agenda*

Urtarrilaren 28an, ortziralean, Kultur Batzordeak antolatuta, Hasier Larretxearen "Bazaudete" liburuxkaren aurkezpena izanen da Kultur Etxean arratsaldeko 19:30etan. Igandean, aldiz, urtarrilaren 30ean, haurrentzako zinema. "Supertramps" filmea 2 euroren truke ikusi ahal izanen dute 17:00etan Kultur Etxean.







LESAKA

# Ortzegun Gizeneko eskearekin abiatuko dira aurten ere Iñauteriak

## Otsailaren 6an, igande arratsaldean aterako dira zakozaharrak

Aitor AROTZENA

Otsailaren 3a izanen da aurten Ortzegun Gizen eta urteroko ohiturari eutsiz, «Arraultze arraultze, zingar arraultze, bat ez bada bertze» eskearekin hasiko dituzte herriko neska-mutikoek iñauteriak.

Lehendabiziko mozorroak otsailaren 5ean, larunbat arratsean ikusiko dira, afal ondoan. Zakozaharrek, frontoiaren gibelaldean belarrez ongi bete ondotik, urteroko ibilbidea osatuko dute igande arratsaldean, musika bandaren laguntzarekin. Beti bezala dantzaldia izanen da plazan.

Astelehen eguerdian lagun koadrila ezberdinek osatutako karrozak ikusteko modua izanen da plaza inguruan. Baserriz baserriko lehendabiziko itzulia astelehen goizean eginen dute Fraindarrek, eginkizun hau xintxo betetzen segitzen duen talde bakarrak alegia. Bertzeentzat egun horretan akautuko dira iñauteak, baina Fraindarrak astelartean ere ibiliko dira Izotzaldean eta herrian. Hauekin parte hartzeko lehenbailehen eman behar da izena Koskillan.



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

**Udalak Kultur eta zientzia lankidetzarako hitzarmena sinatu zuen Eusko Ikaskuntzarekin urtarrilaren 13an. Juan Fermin Mitxelena Lesakako alkateak eta Sixto Jimenez Muniain Eusko Ikaskuntzako Nafarroako lehendakariordeak hartu zuten parte sinadura ekitaldian.**

## Udal musika artxiboa eginen da Eusko Ikaskuntzaren laguntzarekin

Udalak Eusko Ikaskuntzarekin sinatu berria duen elkarlan hitzarmenaren barrenean udal musika artxiboa sortu nahi da. Horretarako, herriko musikarien partiturak biltzeko beka bat konbokatuko litzateke. Partitura horiek digitalizatu eta udal artxiboa sortuko litzateke, interesatua dagoen guziak kontsulta Herriko Etxean egiteko modua izan dezan. Ekimen honekin, Candido Albistur, Luis Taberna, Feliciano Beobide, Santiago Irigoien, Pepito Iantzi, Pascual Aldabe, Michel Etxebeste, Javier Igoa, Salvador Madariaga, Gaizka Sarasola eta Jose Luis Olaetxea herriko musika konposatzaileen partiturak bildu nahi dira.

Orain arte ere Eusko Ikaskuntzako bazkide zen udala baina kontratua hagitz murritza zuten eta hitzarmen hori berritu dute. Horrela, urtero 350 euroko kuota ordainduko du Udalak. Eusko ikaskuntzak bere publikazioak emanen dizkio Udalari.

FLASH

### EHNA tramitazioa

Larunbat honetan, urtarrilak 29, Euskal Herriko Naziotasun Agiria tramitatzeko aukera izanen da Eskol Ttikin, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Horretarako 3 argazki, aitzinetik 012 zenbakian eskatu behar den padroi agiria aurkeztu eta 15 euro ordaindu behar dira.

### Argiteria berritzeko lanak

Montajes Publicos Féler enpresak 133.935,88 eurotan eginen ditu herriko argiteri publikoa berritzeko eta instalatzeko lanak. Hasierako aurrekontua 143.846,93 eurokoa zenez, %6,90 merkeago eginen du enpresa horrek lana. Lanak akautzeko hiru hilabeteko epea izanen du.

### Errekak garbitzea

Udalak Ondalasko eta Katazpegi erreka bazterretako adarrak eta sasiak garbituko ditu. Ondalasko errekan bi zati moldatuko dira, 700 eta 2.000 metrokoak. Katazpegin 350 metro garbituko dira eta tartean 4 sahats eta 14 haitz moztuko dira.

### Palestina solasgai

Urtarrilaren 28an, ortzirala, «Palestina lurralde okupatua» solasaldia emanen dute Beatriz Aranak eta Askapenako kide batek Arrano elkartean 20:30etan.

BEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637828

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Gasoila etxera eramaten dugu
Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

ETXALAR

# Otsaileko lehenengo egunekin ailegatuko dira iñauteriak

## Otsailaren 8an, asteartearekin, aterako dira karrozak egun handian

Joseba eta Nerea

Otsailaren lehenengo egunekin ailegatuko dira inauteriak. Otsailaren 3an ospatuko dute herriko ttikienek beraien iñaute eguna. Ortzegun gizena egun berezia izaten da haurrentzat, goizetik eskean ibiltzen dira etxez etxe urtats eskaka. Arratsaldean, berriz, azkeneko aste hauetan entsaiatzen aritu diren antzezlana plazaratuko dituzte herritarren eta Arantzako eskolako haurren aitzinean. Haur Hezkuntzakoek "Gantzagorri langileak" eskainiko dute, Lehenengo ziklokoek "Erregearen Froga", bigarren ziklokoek "kastafioriren bitxiak" eta hirugarren ziklokoek "Baratzeko animalien borroka". Antzerki hauek karrikaz karrika antzeztuko dituzte eta Antsolokuetarako prestatu dutena sorpresa izanen da. Egun hau bukatzeko haur guztiek berendua izanen dute trikitixa doinu alaiez lagundurik.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Errege egunean banatu ziren Larraburuan mus eta partxis txapelketako sariak. Musean Pello Apezetxea eta Gaston Lestucci izan ziren irabazle eta partxisean Maria Zubieta eta Milagros Santesteban.**

Ortzegun gizen eguna haurren inaute eguna bada ere, helduen inauteriak astelehenean hasiko dira. Egun horretan hainbat gazten bilduko dira baserriz baserri eskean ibiltzeko. 8:30etan Elutsa ostatuan gosaldu eta gero bi taldetan banatu eta goiko eta beheko auzotako baserrietara habiatuko dira. Eguerdian, Armitxen beheko auzoetakoek eta Santsiñeneko bordan goiko auzoetakoek bazkalduko dute arratsaldeko azken txanpari ekin baino lehen. Eta arratseko 8ak aldera iritsiko dira herrira, denak elkartu eta Anttonio jatetxean izanen den afariarekin eguna akautzeko.

Asteartean inauterietako egun handia ospatzen da, hau baita karrozen eguna. Eguerdiko 12etan hasiko dira hainbat mozorro eta orga plaza ingurura hurbiltzen herriari itzulia egiteko. Eta 2:30ak aldera Herriko ostatuan bazkalduko dute desfilean parte hartu duten hainbat lagunek, gorputzak agoantzen duen bitartean luzatuko dute inauterietako azken eguna.

## Mus eta partxis txapelketa

Azaroan hasi zen mus eta partxis txapelketa urteberri egunean bukatu zen. Sari-banaketa, berriz, errege egunean izan zen Larraburuan. Museko txapeldunak Pello Apezetxea eta Gaston Lestucci izan dira, bigarren postuan Prudencio Arburua eta Leon Goienetxe, hirugarrenak Teodoro Perugorria eta Jose Antonio Indaburu eta laugarrenak, Candido Egurze eta Martin Indaburu. Partxis lehiaketan Maria Zubieta eta Milagros Santesteban gailendu dira. Bigarren postuan Anuntxi eta Mertxe Santesteban gelditu ziren eta hirugarrenak Birjinia Arburua eta Asuncion Elizalde izan ziren. Txapelketa honi amaiera emateko urtarrilaren 9an bazkari eder bat izan zuten Larraburua egoitzan. Baina hau ez da Jubilatu Elkarteak antolatzen duen txapelketa bakarra. Joan den igandean, urtarrilaren 23an Magra sariketari eman zioten hasiera.

HERRIKO
OSTATU - JATETXEA

PiKABEA
harategia • urdaitegia
janari prestatuak
Askain, 7 BERA • Tlfnoa: 948 631 284

ELUTSA
OSTATUA
TABAKOAK
Ongi pasa iñautitan

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

EUSKARA

# Nafarroako Gobernuko dirulaguntzen murrizketa salatu dute udal ordezkariek

## Dirua beti euskarari eta kulturari kentzen zaiela lehenbizi gogorarazi zuten

**tti1pi-ttapa**

Nafarroako Gobernuak urte honetan euskararendako diruak %40an murriztuko dituela-eta, Baztan, Bortziriak eta Malerrekako udal ordezkariek prentsaurrekoa eskaini zuten urtarrilaren 14an Doneztebeko Herriko Etxean jokabide hori salatzeko.

Ramon Etxebeste Doneztebeko alkatearekin batera, bertze lau udal ordezkarik parte hartu dute prentsa-agerraldian: Baztango Udalaren izenean Iñigo Iturralde euskara zinegotziak, Bortzirietako Euskara mankomunitatearen izenean Vicente Arozena presidenteak, Malerrekako Mankomunitatearen izenean Mikel Petrirena presidenteak eta Nafarroako Gobernua eta zenbait toki-entitatek udal esparruan euskararen erabilera normalizatzeko lankidetza hitzarmenaren Jarraipen Batzordean hiru eskualdeotako ordezkari den Patxiku Irisarri zinegotziak.



ARGAZKIA: J. IRIGOIEN

**Ramon Etxebeste Doneztebeko alkatea, Mikel Petrirena Malerrekako Mankomunitateko presidentea, jarraipen batzordeko Patxiku Irisarri. Iñigo Iturralde Baztango zinegotzia eta Vicente Arotzena, Bortzirietako Euskara Manko presidentea agertu ziren prentsaurrean.**

Salaketaren arrazoiak esplikatuz abiatu zuen prentsaurrekoa Patxiku Irisarrik.

Baztanen euskararen eragile diren azpiegituren errepasoa eginez abiatu zuen bere txanda Iñigo Iturralde baztango zinegotziak, eta erakunde horiek guztietan Nafarroako Gobernuaren murrizketak izanen duen eragin kaltegarria salatzeko aprobetxatu zuen.

Bortzirietako egoeraren errepasoa egin zuen ondotik Vicente Arozena, Euskara Mankokunitateko lehendakariak. Bortzirietako euskaltegia, ttipi-ttapa telebista eta Labiaga ikastolak bizi duten egoera latzaren aipamena egin bidenabar, Nafarroako Gobernuak euskararen diruak murrizterakoan arazoa udalei pasatu egiten diela salatu zuen. Hala ere, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak euskararen alde duen konpromisoari eutsiko diola azpimarratu zuen.

Eta azkenekoz, Malerrekako mankomunitatearen presidenteak, Mikel Petrirenak hartu zuen hitza. Petrirenak bere aitzinetik beste ordezkariek adierazitako berea egiteaz gain, Malerrekako egoerari egin zion errepasoa. Euskararen aldeko egiazko ahalegina, herriak egiten dutena dela azpimarratu zuen, eta era berean, Nafarroako Gobernuaren jarrerak euskalgintzan ari diren erakundeei egiten dien kaltea salatu zuen.

Nafarroako Gobernuak murrizketak egiterako orduan, euskara eta kulturarekin hasten direla beti azpimarratu zuten ordezkariek: *«Beti bigarren mailan izan dira, anai pobreak»*.

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.
Igantziko Bentak
✆ 948 63 74 11
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Garraio zintak eta mahaiak.
• Mantenu rodilloak.

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
BIDASOA
arkitektura bulegoa
Bittiria, 45 • ✆ 948 637 503 • LESAKA

Altzate, 19 • 948630786 • BERA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

## ARANTZA



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

**Mozorroak iñauteetako zintak paratzen.**



UTZITAKO ARGAZKIA

***Urrezko ezteiak***

**Joan den ilbeltzaren 13an Bautista Irigoien eta Mari Juli Almandoz Serorinbordako bikoteak 50 urte bete zituen ezkondurik. Urrezko ezteia ospatzeko, urtarrilaren 16an meza eta bazkaria izan zuten familiartean. Zorionak bikoteari eta familiari!**



# Joan den ortzegunetik larunbata arte iñauteak izan ziren

### Urtero bezala mozorro xuriek antolaturiko egitaraua izan zen hiru egunez

**Nerea ALTZURI**

Pasatu dire aurtengo iñautik eta orain bertze herrietako ihauterietan gozatzeko aukera izanen dugu. Aurten hamabortz inguru mozorro gazte, lau soinulariekin izan dira alde batetik; eta bertzetik, herriko eskolako dozenaka gaztetxo ere soinulariekin herrian ibili dira. Haur hezkuntzakoak eta lehen zikloko gaztetxoak herrian ibili ziren ortziralean; eta zaharrenak baserrietan ibili ziren, ortziralean eta larunbatean.

Mozorro nagusiek, baserrietako eta etxeetako puxka biltzea, ortzegun eta ortziralean egin zuten, lau auzoetan eta herri kaxkoan ibiliz bi egun horietan.

Ortziralean, bertso afaria Aterpen eta emakumeen afaria Pabloenean izan ziren. Iaz ez bezala, bertso afaria ortzilin izan da aurten, larunbatean Bertso Eguna zela eta, bertsolari ia gehienek hitzordua Donostian zutelako. Maia eta Legarreta bertsolariek afalondoa alaitu zuten. Larunbatean, haur eta gaztetxoen mozorro desfilea iragan zen arratsaldean eta ondotik, Ekaitza elkartearen ekimenez, pilota partiduak eta afaria izan ziren. Ortziralean eta larunbatean Mikel Salaberri eta Jalisko Band musikari eta musika taldeak dantzaldia eskaini zuten hurrenez-hurren. Hurrengo alean, xehetasun gehiago emanen dizkitzuegu.

### *9905 zenbakidun errifa*

Joan den abenduan errifen zozketa egin zen antzezlanak gozatu bidenabar. Bi zare eder zozketaren osagai izanta, zare baten zenbaki sarituaren errifaren jabea agertu zen, baina 9905 zenbakidun errifa duenik ez da agertu oraindik. Lerro hauek idazterakoan behintzat, 9905 zenbakia duen boletoaren berririk ez dugu jaso. Zare eder bat dago jokoan eta ongi begiratu zuen errifak!! Hilabete bukaera bitarteko epea jarri dute.










## SUNBILLA

# Bertso afari arrakastatsua egin zen Ulibeltzak elkartean

### Urtarrilaren 8an 62 lagun bildu ziren afaltzera eta bertsoak aditzera

**ttipi-ttapa**

Joan den urtarrilaren 8an bertso afaria izan zen Ulibeltzak elkarteak antolatuta, eta Lanku eta Euskadiko Kutxaren laguntzarekin. Lau bertsolari aritu ziren: Angel Mari Peñagarikano, Amets Arzallus, Xabier Silveira eta Estitxu Arozena. Gaiak jartzen Patxi Larretxea aritu zen. Kasik goizeko ordubiak arte aritu ziren bertsotan eta ederki gozatu zuten afaltzera bildu ziren 62 lagunek. Saio bikaina eskaini zuten lau bertsolariek eta erran behar da gaiak jartzen ere asmatu zuela Patxi Larretxeak.

Lanku taldeari buruz, aipatu behar da Euskal Herria osoan prestatzen dituzten bertso saioen artean hamalaugarrena zela Sunbillakoa eta erran zutenez, hau izan zen saiorik hoberena nahiz bertsoen maila aldetik, nahiz giroaren aldetik. Beraz, denak gustora gelditu ziren. Eta zorionak eman behar zaizkio Ulibeltzak elkarteari, azken bolada honetan bezala segi dezala ekitaldiak antolatzen aunitz urtez.



Argazkia: Lanku

**Silveira, Arotzena, Arzallus, Peñagarikano eta Larretxea, bertso-afarian.**

## ITUREN

### *Ibintzaren zozketa*

Ibintza kultur taldeak urtarrilaren 5ean egin zuen Eguberrietako zozketa. lehendabiziko saria, zare eder bat, 2.520 zenbakiari egokitu zitzaion; bigarrena, bizikleta, 2.894 zenbakiari eta hirugarrena, Altxunea erretegian afaria, 2.148 zenbakiari. Lehenengo eta hirugarren sariak banatu dira jadanik, baina bigarren sariaren zenbakia atera gabe dago oraindik. Ateratzen ez bada, bizikleta otsailaren 5ean zozketatuko da berriz.

Bertze aldetik, iturendarrek urteko 40 euro ordainduko dute uraren-gatik eta ostatu eta jatetxeek 80 euro. Auzolanera joaten ez direnek 24 euro ordaindu beharko dute.

## ZUBIETA

# Auzolanaren eta errotako museoaren prezioak zehaztu ditu Udalak

Zubietako Udalak 33 euro kobratuko die aurten auzolanera joan ezin edo joan nahi ez duten bizilagunei. Modu berean, errotako ekomuseoko sarrerako prezioak berdin utziko ditu aurten. Honela, helduek 3 euro ordaindu beharko dute eta eskola adinean dauden neska-mutikoek, ikasleek 1,50 euro. Hamabortz lagun baino gehiagoko taldetan datozen helduek ere, pertsonako 1,50 euro ordainduko dute. Zortzi urte bitarteko haurrek, taldean ez badatoz, sarrera doan izanen dute.












MALERREKA

# Oinezkoendako bidea egin gogo dute Doneztebe eta Zubieta artean

## Doneztebe, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako udalak «Uraren Bidea» gauzatzeko elkartu dira

**ttipi-ttapa**

Doneztebe, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako udalak lau herri hauek lotuko dituen «Uraren Bidea» sortzeko asmoz bildu dira. 7,4 kilometroko ibilbide hau oinezkoendako eta bizikletendako izanen da eta gehiena Ezkurra errekaren ondotik joanen da, gaur egun dauden bideak aprobetxatuz. Basarteak egindako proiektuaren memoria onartu dute dagoeneko eta 220.380 euroko aurrekontua kalkulatu dute. Lau udalek ordaindu beharko dute, bakoitzak izanen duen bide zatiaren arabera. Zatirik handiena Iturenen izanen da eta 90.674 euro ordaindu beharko ditu; Doneztebek 74.550 euro ordaindu beharko lituzke, baina zurezko zubi bat ere eginen denez, bertze 33.786 euro ordaindu beharko ditu; Elgorriagak 35.253 euro ordainduko ditu eta Zubietak 19.902 euro. Proiektua Nafarroako Gobernuaren Turismo Departamentuari aurkeztuko zaio, dirulaguntzak lortu ahal izateko eta bizpahiru urtetan akitzea espero da.

### *Monologoak Gazte Burrunbaren eskutik*

Gazte Burrunba kultur elkarteak antolatuta Movimiento Bolaren monologoak aditzeko aukera izanen da Doneztebeko zineman. Lehenbizikoa urtarrilaren 22an egin zen eta bigarren saioa larunbat honetan, urtarrilak 29, 19:00etan izanen da. Udalak zinema utzi die gazteei ekitaldi hau gauzatzeko. Antolatzaileek aipatu dutenez, «El club de la Comedia» gustokoa dutenek oraindik gustorago adituko dituzte Movimiento Bolaren monologoak, zuzeneko solasaldi dibertigarriak baitira.

Alberto RETEGI
Altzate, 17 BERA ✆ 948 630 763
abokatua



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

***101 urte bete ditu Fulgencia Iratzokik Donamarian***

**Beran sortu eta Donamariako Porotxonean bizi den Fulgentzia Iratzokik 101 urte bete zituen urtarrilaren 16an. Sei seme-alaben ama, 19 biloben amatxi eta 23 birbiloben birramona da Fulgencia eta horietako gehienak bildu ziren bere urtebetetze eguna ospatzera.**



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

***Diamantezko Ezteiak, 60 urte ezkondurik Doneztebben***

**60 urte ezkondurik bete dituzte Doneztebeko Jose Manuel Iribarren eta Carmen Etxebestek, Ameztia ostatuaren sortzaileek. Joan den abenduan ospatu zituzten Diamantezko Ezteiak familia osoarekin. Biek 86 urte beteko dituzte otsailaren 4an eta martxoaren 13an.**



GOIZUETA

# Mozorroen taldea baserri askotan hartu nahi ez izanak kezka sortzen die antolatzailei

Otsailaren 6tik 8ra eginen dira iñoteak



ARGAZKIA: MARTINE APEZETXEA
**Aerobiceko emakumeen konpartsa astelehen arratsaldean ibiliko da herrian.**

Esteban AROTZENA

Orain dela urte batzuk arte hiruzpalau baserri izaten ziren astelehen-iñote egunean mozorroen taldeari aterik irekitzen ez zietenak. Azkeneko urte hauetan berriz, gero eta gehiago dira karnabaletako protagonista nagusi diren gazteak bere etxe aurrean hartu nahi ez dituztenak. Egoera honek hausnarketa egitera bultzatu ditu mozorroen arduradunak. Baserritarren artean banatuko duten idazkia ere prestatu dute. Beraien helburu bakarra ohitura zaharrari bizirik eustea da. Ez omen diote garrantzirik ematen eskea jasotzeari. Etxekoren bat atarira atera eta taldeak fandango bat dantzatzeko aukera edukitzea omen da nahi duten gauza bakarra.

**Baita eskuzabal askiak ere**

Dena den, goian esandakoak kezka eta pena sortzen baldin badu ere mozorroengan, orokorrean baserrietan jasotzen duten harrera eta eskuzabaltasun ikaragarria azpimarratu nahi dute. Ohikoa da korneten soinua aditu orduko familia osoa ateratzea. Baita dantza egindakoan sukaldera pasarazi eta gosari ederrarekin batera poltseroari eskupekoa ematea ere.

Egitarauari dagokionez esan, igandean eta astelehenean Mikel Salaberriren esku egonen dela plazako musika. Asteartean berriz, Jalisko Band taldeak joko du. Honetaz gain, betikoari eusten zaio, eta mozorroen ekitaldiez gain, eskolako kalderoak, konpartsak eta besteen emanaldiak izanen dira egun ezberdinetan. Azpimarragarriena, beti bezala, astearte arratsaldeko zahidantza eta ilunabar eta gaueko mozorro festa eta neurririk gabeko parranda.

### *Udal zerga eta tasak*

2005. urtean indarrean egonen diren hainbat zerga eta tasen igoerak onartu zituen udalbatzak abenduko osoko bilkuran. Urbana delakoaren tipoa 0,26tik 0,30era igo da. Obretakoa berriz, aurrekontuaren %3a kobratuko da lehen %2,5 egiten zen bezala. Ura, beste aldetik, 18,93 eurotik 25 eurora igo da, eta zaborra, 24,84tik 30era. Azkeneko bi tasa hauek etxebizitza arruntei dagozkien kopuruak dira.

ARESO

# Ilbeltzeko eguraldi ona etxeak moldatzeko aprobetxatu dute

Iñauteriak ospatuko ditugu heldu den astean



ARGAZKIA: JUANA MARI
**Eskolako teilatua berritzen ari dira eta eskolako umeak tokiz aldatu dira. Erasonean eta udalak duen lokalean ariko dira ikasten.**

Juana Mari SAIZAR

Ilbeltzak eman dizkigun egun eguzkitsuak, obrak egiteko aprobetxatu dituzte hainbat etxebizitzetan. Lau grua ikusi ahal izan ditugu herrian. Esan beharra dago herria edertzen ari dela egunetik egunera. Etxebizitza beharrei buruzko galdekizuna prestatu du udalak eta horren arabera izango da udalerriaren hirigintza plana. Etxe guztietara banatu da eta erantzuteko epea otsailaren bukaeran bukatuko da.

### *Kontribuzioak jeitsi dira*

Aurtengo kontribuzio tasak jeitsi dira %31tik %17ra. Aldaketa honen zergatia lurraren prezioa garestitu dela da. Ez kasu guztietan, beraz, errebisio honek batzuendako onura eta besteendako kaltea ekarriko du.

### *Elizako teilatua eta Sakristiako zola moldatuak*

Elizako teilatuari errepasoa eman eta oraingoan sakristiko zola altxa eta berria egiteko asmoa dute. Esan behar da ikaragarrizko ikatz pila azaldu dela, nonbait garai batean isolatzeko erabiltzen zuten. Hezur batzuk ere ikusi ahal dira eta atera dituzte.

### *Iñauteriak*

Eguraldia aldatu zaigu, elurra goietan, txerriak hiltzeko denbora ailegatu da, hurrengo asteburuan karnabalak...




# IÑAUTERIAK



2005

# SUNB

**ESPELOSIN ERAIKUNTZAK**
Auloa Baserria
Tfnoa: 948 45 07 73
Mugikorra: 619 416 959
SUNBILLA

**MARISOL JANARIDENDA**
Karrika Nagusia, 7 - Tfnoa: 948 45 06 08 - SUNBILLA

**Tout POUR LA Fête**
Den-dena besta egiteko
Estazio karrika 13 (bi zubien artean) • HENDAIA
Tel.: 00.33.0559.48.37.58



- Mozorroen alokairu eta salmenta
- Baserritarren jantzien aukera zabala
- Mozorro guzietako osagarriak
- Makilai profesionalak
- Piroteknia artikuluak (petardo, su-ziriak...)

**Prezio ezin hobeak**



Igande honetan, azken urteotako iñauteriek izan duten arrakasta ikusita, berriz ere jende pila bilduko da Sunbillako karriketan. Ikusleek, gainera, hotzari aurre egiteko pintxoren bat eta salda bero pixko bat jan-edateko aukera izanen dute, sunbildarrek horretarako espres egiten baitute karroza bat.

Baina igandea iñauterietako azken eguna da Sunbillan. Aitzinetik ere aski asteburu mugitua izaten dute sunbildarrek, ortziral goiz-goizetik hasita:

## Ortziralean, puxka biltzea eta emakume afaria

Ortziral goizeko 9etan abiatuko dira iñauteriak, Itturburu ostatuan abiatu ere. Hantxe bilduko dira gazteak gosari ederra egiteko. Ondotik, baserrietara joanen dira urteroko eskea egitera bi taldetan banatuak, Modesto eta Joxe Angel akordeolariekin. Etxe guzietan ederki hartuko dituzte eskean etorritakoak, dudarik ez, bainan bereziki Istolan eta Exkerneko bordan. Izan ere, eguerdiko 2etan bazkaria eginen dute bi baserri hauetan.

Arratsaldeko 5etan txokolatada izanen da Ulibeltzak elkartean haurrentzat, Mikel Salaberriren musikarekin. 4etatik 6etara arituko da akordiolaria Ulibeltzak elkartean, eta gero, udaletxera joanen da. Dantzaldia arkupetan izanen da, bai haurrentzat eta bai helduentzat arratseko 8etatik 10ak arte.

Arratseko 9,30ak aldera, gazteek Itturburu ostatuan afalduko dute, eta emakumeek, berriz, Ulibeltzak elkartean. On-








# ILLA





**Urteak joan, urteak etorri, karroza ikusgarriak plazaratzen segitzen dute Sunbillako gazteek. Duela urte batzuk, Frantziako Tourreko malda ikaragarrietan ibili ziren txirrindulari salatuak. Bidasoa errekan beheiti etorritako almadiak eta itsasotik errekan goiti etorritako arrantzaleak ere ikusikatu ditugu.**

Uutzitako argazkiak

dore, sorpresa eta dantzaldia izanen dute Salaberrirekin. Erran behar da gazteek eta emakumeek ez ezik, eskolako neska-mutikoek ere ederki gozatzen dutela egun honetaz, mozorrotuak joaten baitira eskolara.

Larunbatean gazteak goizeko 9etarako Iruribietan bilduko dira gosaltzeko, eta ondotik herrian barna aterako dira eskean, goizean Modesto eta Mikel Salaberrirekin. Eguerdian, eskean ibili direnek Fondan bazkalduko dute. Arratseko 8etatik 10etara dantzaldia izanen da arkupetan Modestorekin. Arratsean Elor-txuri hotelean afalduko dute gazteek.

Aitzineko bi egunetan bezalaxe, igande goizeko 9etan gosaltzeko bilduko dira sunbildarrak, oraingoan koadrila bakoitza bere txokoan. Herria bisitariz beteko da laster, eta sunbildarrak karrozak hartuta herrian barna desfilean ibiliko dira. Aitzineko hilabeteetan egindako lana erakusteko ordua da, karroza horiek ez baitira egun batetik bertzera prestatzen. Goizeko 11:30etan abiatuko da desfilea. Opilak, gaztainak, hezur salda, tortilla eta ardoa banatuko zaie ikusleei, gazteek egindako lanari esker.

Bazkalondoan Jalisko Band taldearen musika izanen dute giroa alaitu eta iñauteriak ongi akautzeko.

GAZTANDEGIA
Lizun
Etxeko Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 662 • SUNBILLA

Juan Luis Apeztegia
Garraioak
Mendeberri • SUNBILLA
☎ 948 450778 • 639 723673

ALTZURI MENDI LAN - ESKABAZIOAK
Tel./Fax: 948 450 504
Móvil: 659 867 287
SUNBILLA - NAFARROA
Ongi pasa Iñauteriak!

Maria Jesus
HARATEGIA
Bertako haragia
Ongi pasa iñaut...!
Karrika Nagusia, 11 • Tfnoa: 948 45 15 30
SUNBILLA

IRURI MOTOR
Aukerako autoak
4x4 autoetan modelo guziak
Salerosketa zerbitzua
Iruña-Irun errepide zaharra, 61'5 km.
☎ 948 450399 • SUNBILLA

# ITUREN, AURTI

Beti bezala, ortzegunean, urtarrilaren 27an joaldunek eginen duten lehen puxka biltze eta afariarekin hasiko dira Iñauteak Aurtitz, Ituren eta Zubieta aldean. Larunbatean izanen dute segida, afaria eta dantzaldia egiten baita egun horretan.
Igandean, jantzi osoa paratuz, lehen ibilaldia eginen dute joaldunek karrikaz karrika.





### Joaldunen joan-etorriak

Astelehenean, urtarrilaren 31n, mozorro eta karrozek lagunduta joaldun zubietarrek eta aurtiztarrek bisita eginen diete Iturengoei. Lasagako Zarandia parean, Aurtiztik heldu den bidetik agertuko dira, eta joaldun guziek batera, herriari buelta emanen diote.
Asteartean, otsailaren 1ean, Ituren, Aurtitz eta Lasagako joaldunek bisita bueltatuko diete zubietarrei, urtero-urtero, batzuen ustez natura ernatzeko eta uzta berri eta ugarriak emateko egiten den ohiturari eutsiz.
Asteazkena lasaiagoa izaten da, bakoitza bere herrian gelditzen baita, eta bazkari eta afarien artean besta egiteko eta azkeneko gau eta egun luzeetan gertatutakoen balantzea egiteko erabiltzen dena. Aurtitz eta Iturenen, halere, etxez etxe dirua eta puskak biltzen eta kaferen bat hartzen ibiltzen dira gazteak.

### Kontuen Eguna

Kontuen eguna izaten da, hain zuzen, Iñauteetako azkena. Egun horretan ez da joarerik jotzen. Zubietan asteakenean egiten dute. Iñauteak akitu eta hurrengo larunbatean egin ohi da Iturenen eta Aurtizen,







# TZ eta ZUBIETA



aurten otsailaren 5ean izanen da. Iturenen bazkaria izaten dute Herriko Etxean. Bazkaldu aitzinetik bertsolariak eta aizkora apostua izanen dute herriko plazan. Bazkaldu ondotik dantzaldia izanen da eta, mozkorraldia izugarria ez bada, bederen, bestarekin segitzeko aukera dago, afari eta dantzaldian. Aurtitzen xaharrek afaria egiten dute eta Iturenen kontuen afaria, iñauteak heldu den urtera arte agurtuz.

ERRANDONEA
OSTATUA
Iñauterietan giro paregabea
✆ 948 450216 - ZUBIETA

HERRIKO OSTATVA
TABERNA
LOGELAK
JATETXEA
(betiko eta bertako sukaldaritza)
Karrika Nagusia • ZUBIETA
948 451 953 • 948 451 771

AITXUNEA ERRETEGIA
ITUREN
Astebururan, besta egunetan eta bezperatan irekia
Iñauterietan irekia
Ongi pasa iñauteriak!!
✆ 948 450410 • Ituren

Baztan-Bidasoako sagardotegiak
LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa
LARRALDEA
Telleria auzoa • LEKAROZ
948 452121 • 626 494317
LINDDURRENBORDA
Nabaz auzoa • LESAKA
948 637212

SANTESTEBAN ZURGINDEGIA
OIHAN ESPLOTAZIOAK
ZERRATEGIA • ZUREZKO HABEAK
MOLDURAK • ZEPILLATUA
TRATAMENDUA AUTOKLABEAN
BAZTANEA • ZUBIETA
Tel. 948 45 08 77 - Faxa 948 45 19 94

# SUNB

AROZENA OSTATUA
Gosariak eta bazkariak
Eguzki Eder, 3 DONEZTEBE Tfnoa:948450443

Gizoseme eta Emakumeendako Boutique
HONORIO TABERNA
MERKEALDIAK
Tfnoa: 948 450 109 · Merkatarien karrika 29, · DONEZTEBE

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

IRRINTZI OSTATUA
Aurtengo iñauteriak umore ederrean pasatu
Merkatarien karrika 28
✆ 948 451826
DONEZTEBE

## Juanjo IBARRA: SUNBILLAN GERO ETA KARROZA HOBEAK EGITEN DIRA GAZTEEK LAN EGITEKO ILUSIOA DUTELAKOZ

**Sunbillan karrozak prestatzen beteranoetako bat zara. Zein urtetan hasi zineten egiten eta zergatik? Zein izan zen lehendabiziko karroza hura?**
Orain dela 23 urte inguru egin genuen lehendabiziko karroza. Zergatik? Berriz ere iñauteriak berreskuratzeko asmotan eta bidenabar ongi pasatzeko. Gure lehenbiziko karroza «papamobila» izan zen. Bertan Aita Santuak (ni), kardenalak (Zubito), txoferrak eta bizkartzainek osatzen genuen karroza. Guk karroza horreri *licuadora* deitu genion… zergatik? Aita Santua goitzen zelako eta *zumo ponticife*-a bajatzen zelako.

**Geroztik hainbat karroza prestatu izan dituzue. Zein da gehien gustatu zaizuna? Eta ikusten zegoen jendearen aldetik arrakasta gehien izan zuena?**
Denak gustatu zaizkit, baina bat aipatzekotan, eta lan haundia eman zuena, Santiago Compostelako katedrala izan zen. Duela 2 urte egindakoa. Nik uste dut jendearen aldetik lehenengo urtean egindako Aita Santuarenak oroitzapen hagitz onak utzi zituela eta aunitz gustatu zela, nahiz eta orain egiten diren karrozak hobeak izan generalean.

**Zenbat denbora behar izaten duzue horrelako karroza bat egiteko?**

ola SAGARDOTEGIA
102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel.: 943 623 130
TXOTX
denboraldia berria hasi dugu
- Astegunetan, arratsaldeko 6,30etatik aurrera zabalik.
- Asteburuetan, eguerdian ere zabalik.
- 250 lagunendako lekua jarrita.
- 50 autorentzat parkina. Autobusak. Klimatizatua.
- Sagardoa bertan egiten dugu, sagarra Irun, Hondarribia eta Zarauztik ekarriz.

ttipi ttapa
Tfnoa: 948 63 54 58
Faxa: 948 63 54 57
ttipi-ttapa@ttipi.net
Andutzeta 12
ETXALAR

# ILLA




**Diru aunitz gastatzen duzue?**
Horrelako karroza bat egiteko bi hilabete inguru behar izaten da eta gutti gora behera lehengo 150.000 eta 200.000 pezeta artean, inguru horretan gastatzen da. Hor sartzen dira materiala, musika ekipoa eta jantziak.

**Orain hainbat eta hainbat karroza ateratzen dira Sunbillan. Zergatik izaten du horrelako arrakasta?**
Lehenbizi herriko gazte eta heldu guztiak elkartzen garelako giro on batean eta ilusio hagitz haundia badelako. Eta giro horretan, nahiz eta lan haundia izan, gustura egiten da eta hori kutsatu egiten da. Arrakasta karroza aunitz dagoelako eta urtetik urtera badelakoz kuriosidade bat zer aterako den ikusteko, horrek jendea erakartzen du.

**Zaharrenetakoak gelditu zarete zuen kuadrilakoak… Gazteen aldetik etorkizun ona ikusten diozu Sunbillako karrozei?**
Bai, hagitz ona. Aspaldiko urtetan ikusten da gazteek ere ilusioa eta lan egiteko gogo haundia dutela eta karrozen mailan nabaritu da hori. Eta gainera, animatu egin behar da gazteei horrela segitzeko, etorkizuna beraiek baitira.



ARGAZKIAK: MENA

Juanjo Ibarra ageri da goiko argazkian, txinatar jantziarekin. Bere ustez, Sunbillako karrozen etorkizuna eta kalitatea segurtatua dago, gazteek lan egiteko ilusioa eta gogoa dutelako.


eskabazioak
SASOI
948 451 596
667 424 635
SUNBILLA
Nafarroa

LEITZA

# Herrikoentzat lanpostuak sortzeko ordenantza onartu du Udalak

## Emakumeendako lanpostuak ere bultzatuko ditu dirulaguntzen bidez

ttipi-ttapa

Udalak herrian lanpostuak sortzeko ordenantza onartu zuen azken batzarrean. Herrian instalatu edo beraien instalazioak handitzen dituzten enpresendako laguntzak arautu dira, beti ere Leitzako langileak eta batez ere emakumeak, baldintza duinetan kontratatzen badituzte. Laguntzak ematerakoan Eraikuntza, Instalazio eta Obretako Zerga hartzen da kontuan. Guttienez 8 lanpostu berri sortzen direnean eta langileen erdiak Leitzakoak direnean %80 lagunduko da. Dirulaguntza %60koa izanen da 6 lanpostu sortu eta langilegoaren %40 Leitzakoa bada. Lau lanpostu sortzen direnean %40 lagunduko da. Laguntza hauei bertze %20 gehitzen ahal zaio, lau lanpostu berri edo gehiago sortu eta horietako %40 edo gehiago emakumeek betetzen baldin badute. Dena den, osotara gehienez %90eko dirulaguntza ematen ahal du Udalak.



Arteaga
**Negu minean jakinarazi ditu udalak udan igerilekuan sartzeko izanen diren prezioak. Kiroldegiko bazkideek deskuentoak izanen dituzte.**

### *Kirol instalazioen kudeaketa*

Abenduaren 30ean egindako batzar berean, kiroldegiaren, pilotalekuaren eta udan igerilekuaren kudeaketa emateko baldintzak jakitera eman zituen Udalak. Zerbitzu hauek hartzen dituen enpresak gehienez 95.000 euroko dirulaguntza izanen du. Patxi Saenz alkateak jakinarazi zuenez, baldintzak aldatu dira zerbitzua hobetzeko eta udal instalazio hauen kudeaketa erakargarriagoa egiteko.

Gaur egun Hydra enpresak kudeatzen ditu kiroldegia eta pilotalekua, 55.000 euroko dirulaguntzarekin. Baina Udalak beste 10.000 euro jarri behar izan zituen, herriko klub eta kirol elkarteen erabilera ordaintzeko. Gastu hau desagertuko da, baina klubek bazkide kuotaren %30 ordaindu beharko dute. Enpresa honek berak hartu zuen udan igerilekua, 20.000 euroko kontratuarekin. Orain, kiroldegiko bazkideek deskontuak izanen dituzte sarrera eta abonamenduetan. Uda honetarako igerilekuko prezioak ere zehaztu ziren. 5 eta 13 urte arteko haurrek eta 65 urtetik gorakoek uda osoko abonamendua 16 euro ordainduko dute bazkideen kasuan eta 20 euro bazkide ez direnean. 14 eta 17 urteko gazteek, 25 euro bazkideek eta 30 euro bazkide ez direnek. Helduek 48 euro ordainduko dute, 54 euro bazkide ez direnek. Hamar eguneko bonoa 25 eurokoa izanen da bazkideentzat eta 30 eurokoa bazkide ez direnentzat. Eguneko sarrerei dagokienez, bazkideek 3,5 euro ordainduko dute eta bazkide ez direnek 3,80 euro.

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa • saneamendua • gasa
✆ 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

ttipi ttapa
Tfnoa: (0033) 948 63 54 58
Faxa: (0033) 948 63 54 57
ttipi-ttapa@ttipi.net
Andutzeta 12 • ETXALAR

FLASH

### *12 etxebizitza Landa Behekoan*

Landa Behekoa parajean, Arakindegi aurrean, 12 etxebizitza berri egin behar ditu Arremia Etxegintzak, guztiak prezio librekoak. Urte hasieratik zola botatzen aritu dira eta orubeak finkatu ondoren eraikuntzari ekin diote dagoeneko. Eraikuntzak, hiru solairu izanen ditu eta teilatupea. Solairu bakoitzean launa etxebizitza izanen ditu etxeak. Teilatupea, hirugarren solairuko etxebizitzentzat, bizilekua handiagotzeko erabiltzen ahal da. Baxuetan, berriz, komertziorako baliatu daitezkeen lokalak eginen dira eta guziaren azpian, lurpeko garajeak.

### *6.000 litro olio*

Iaz 6.000 litro olio baino gehiago bildu ziren Leitzan, 1.600 lagunen eta herriko jatetxeen artean. Ecogras enpresaren datuen arabera 4.000 litro inguru bildu dituzte herriko jatetxe, ikastetxe edo elkartetan. Herritarrei dagokienez 2.195 litro olio jaso dira zerbitzuan eta 1.608 lagun hurbildu dira furgoneta biltzailera.

### *Bolumen handiko zaborrak*

Bolumen handiko zaborrak biltzeko hilabetean bi egun egokitu direla eman du jakitera Udalak bando baten bidez. Horrela, hilabeteko bigarren eta laugarren asteazkenetan jasoko dituzte bolumen handiko zaborrak, aldez aurretik Infolocaleko012 telefono zenbakira deituta. Hor, norberaren datuak utzi behar dira eta nolako trastea jasotzea nahi den adierazi.

BAZTAN

# Iñarbil eta Iñarbegi auzoen arteko errepide berria ireki dute Erratzun

## 400.000 euro gosta da eta %80 Nafarroako Gobernuak ordaindu du

**ttipi-ttapa**

Urtarrilaren 12an ireki zen Erratzun Iñarbil eta Iñarbegi auzoen arteko bide berritua. 6.241 metro luze ditu bide berriak eta lau metro terdiko zabalera eman zaio. Lanen aurrekontua 400.000 eurokoa izan da, %80 Nafarroako Gobernuak ordaindu du eta gainerako %20a, 80.000 euro, Balleko Udalak. Orsa enpresak sei hilabetez egin ditu moldaketa lanak eta trafikoari ireki baldin bada ere, azken ukituak ematea falta da. Iñarbil eta Iñarbegi arteko bidea arras hondatua zegoen, hainbat zulorekin eta ibilgailuendako egoera kaxkarrean.



Argazkia: Ondikol

**Iñarbegi eta Iñarbilen arteko bidea moldatzen aurrikusia baino gutiago gastatu denez, soberan gelditu den diruarekin Iñarbegi eta Beartzun auzoen artean dagoen zubi estua segurtatu eta moldatuko da.**

Urtarrilaren 12ko inaugurazio ekitaldian, udaleko ordezkariekin, Santiago Ibargarai Erratzuko alkatearekin eta auzo horietako zenbait bizilagunekin batera, Alvaro Miranda Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabidetako izan zen.

Santiago Ibargarai alkateak erran zuenez, larrialdi kasuetan arriskutsua zen lehengo errepidea: *«Arras hondatua zegoen, mediku eta anbulantzia gidariek erraten zuten ez zirela gehiago joanen. Egunero eskolara taxian gan behar duten haurrak ere badira eta arriskuan zeuden».* Gaur egun 24 lagun bizi dira Iñarbegiko bederatzi baserrietan eta landa etxean. Hauek bide bazterrak moldatzen lagundu dute eta behar denean mantenimendu lanak egiteko ere borondatea agertu dute.

Errepide hau moldatzea hasieran aurrikusia zena baino gutiago kosta denez, Nafarroako Gobernuak Iñarbegi eta Beartzun auzoen artean dagoen zubi estu eta hondatua segurtatu eta moldatuko du soberan gelditu den diruarekin.

## FLASH

### *Arizkungo Berroa zubia*

Baztan eta Urdazubiko Santiago Bidaren Lagunak elkarteak Arizkungo Berroa zubia moldatu nahi du eta horretarako laguntza eskatu dio Balleko Udalari. Udalak bat egin du eskariarekin eta dirulaguntza eskatuko dio Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo departamentuari, 8.013,34 euroko aurrekontua duen lana gauzatu ahal izateko.

### *Amaiurko errota*

Balleko Udalak 135.065 euroko dirulaguntza jasoko du Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentutik Amaiurko errota moldatzeko eta eta turismo erabilerarako egokitzeko. Proiektua egiteko eta lanak gauzatzeko 191.376 euroko aurrekontua aurkeztu da eta horren arabera, errotan museoa eginen da.

### *San Antongo aretzea erresidentzian gelditu zen*

San Anton egunean Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte erresidentziak zozketatzen duen aretzea erresidentzian bertan gelditu zen, Juanjo Dagerre baitzen 8.045 zenbakiaren jabea.






BAZTAN

# Iñaute giroan sartu dira herriz herri

## Orabidean abiatu ziren urte berriarekin eta kasik astero izan dira ospakizunak

**ttipi-ttapa**

Iñauteri giroan murgilduak daude Baztango herri eta auzoak. **Orabidea**n ekin zioten lehenik eta pittanaka, herri eta auzo ezberdinetara ailegatuko da iñauteri giroa. Gan den larunbatean Gizakunde eguna ospatu zuten **Erratzu**n eta **Arizkunen**, Jo ala jo eta Erratzuko kultur elkarteek antolatuta. Arizkungo Elkartean merendua egin ondotik, mozorro ibilaldia egin zuten Arizkundik Erratzura Bizkargain fanfarrearekin, txistulariekin eta joaldunekin. Karriketan barna puxkebiltzea eta mamurru uxatzea egin zuten. Erratzun ere puxkebiltzea egin ondotik, elkartean afaria eta Jantzilo epaitu zuten, bertsolarien laguntzarekin. Afalondoan Jantzilo erre zuten plazan eta akitzeko orro eta irri egin zuten Erratzun barna. **Arraioz**en eta **Oronoz-Mugairi**n ere asteburu honetan egin dituzte iñauteak. **Aniz** eta **Berroeta**ko gazteek elkarrekin ospatu dituzte iñauteak, horretarako azke bi aste hondarrak aprobetxatu dituzte.

**Ziga**n, ortzirale honetan, urtarrilaren 28an orakunde egune ospatuko dute haurrek goizetik, gero bazkaria izanen dute, jokuak, txokolatada... 14:00etan gazteen bazkarie izanen da elkartetxen; 15:30etan etxez etxe ibiliko dira Zigaurre eta Egozkuen, 21:30etan afarie elkartetxean eta gauerditik aitzinera plazako ostatuen besta izanen da.



### Elizondoko Berro auzoko iñautea berreskuratu dute

**Elizondoko Berro auzoko iñauteak berreskuratu nahian, 15 urteren buruan, aurten bigarren urtez antolatu dute gazteek otsailaren 6an eta 7an. Xaltxan sartzeko, otsailaren 5ean, launbeta, Berroko Berroalde soziedadean bazkari bat eginen dute, bertara auzoko gazte eta helduak bilduko direlarik. Ondotik Zubietako akordiolari batek animaturik dantzaldia izanen dute. Igandean, otsailaren 6an, gazteak Berroalde soziedadean bilduko dira goizeko 9:00etan gosaltzeko. Ondotik, etxez etxe puskak biltzen ibiliko dira Berroko etxe eta baserrietan. Arratsean Berroaldera bilduko dira bildutako gauzekin afari ederra egiteko, apetituak laguntzen badu...**

**Otsailaren 7an, astelehena, berriro auzoko soziedadean bilduko dira gosaltzeko eta ondotik, Etxaide, Akullegi eta Antzanbordan puskak biltzen ibiliko dira. Arratsean soziedadean afaria izanen dute eta ondotik dantzaldia izanen dute iñauteak akitzeko.**

Larunbatean, urtarrilaren 29an, iñaute eguna ospatuko dute. 10:30etan gosaria izanen dute elkartetxean. 11:30etan etxez etxe ibiliko dira Zigan eta Auzkuen. 21:00etan dantzaldia izanen dute frontoian. Mozorro «originalenak» saria izanen du eta sorpresak ere izanen dira. 22:30etan afaria izanen da leku berean eta horretarako frontona behar bezala egokituko da. Afarira gateko elkartetxean izena eman behar da. Gauerdian hasita dantzaldia izanen da eta azkenendako txokolatada goizaldean. Igandeko bestondo eguna gozatzeko, 14:00etan bazkaria izanen da Etxezurien.

**Azpilkuetan** eta **Erratzun** ere aste hondar honetan izanen dituzte iñauteak.

Egun ofizialetan, otsailaren 8an eta 9an **Elizondo**ra eta **Arizkunera** ailegatuko dira iñauteak. Hartza astearten aterako da.



ONASKA
ERRETEGIA
Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasan
Bagordiko bidean • ELBETE
✆ 948 45 20 88


ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK
Parrilan egindako haragi eta arrainak
Tel: 948 453 410 Fax: 948 453 378
ARIZKUN

BURKAITZEA
ostatu erretegia
Zugarramurdiko bidea, 3 km
✆ 948 599280 • URDAZUBI

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia
✆ 948 580 013
ELIZONDO

Pierrésenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • ✆ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

SARA

# Gaztetxeak otsailaren 5 eta 6rako antolatu ditu aurtengo ihauteriak

## Larunbatean etxez etxe ibilio dira gazteak eta igandean Zanpantzar epaituko da

**Laetitia eta Saski**

Urtero bezala, Sarako Gaztetxeak antolatzen ditu ihauteriak otsailaren 5 eta 6an, larunbat eta igandez. Larunbatean etxez etxe ibiliko da gazte andana. Goizeko 9etan Zahar Etxera joanen dira bisita egitera, gero Helbarrun, Ihalar, Istilarte eta Lehenbizkai auzoetan ibiliko dira egun osoan dantza eta musikarekin. Arratsean plazan bukatuko dute Herriko Etxeko Edantegian, hor Tabasco taldea entzuten ahalko da.

Biharamun goizean, meza ateratzean, gazte eta dantzariak ibiliko dira herriko plazan, Zazpiak bat dantza taldea ikusgarri bat emanen du eta ikastolako haurrek kantatuko dute. Ondotik ihauteri guzietan ohitura den bezala zanpantzarren auzia eginen da. Aperitifa ondotik Olhain ikastolak herriko bazkaria antolatuko du Omordiako gelan. Txartelak erosten ahal dira Herriko Etxeko Edantegian 18 eurotan helduentzat eta 6 eurotan haurrentzat.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Ohitura den bezala, Zanpantzarren auzia eginen da igandean eta ondotik su emanen zaio.**

### *Mus txapelketak Omordian eta Herriko Etxeko edantegian*

Heldu den otsailaren 5ean, larunbatarekin, Sarako Izarrak, errugbi taldeak, bere bederatzigarren mus txapelketa antolatzen du Omordiako gelan arratsaldeko 2etatik goiti. Txapelketa deneri idekia da. Egun eta toki berean afari bat izanen da, 20eurotan finkatua da parte hartzea gehi afaria. Izenak ematen ahal dira Keinu Tabernan.

Otsailaren 11tik goiti Herriko Etxeko Edantegiko neskek beren mus txapelketa hasiko dute. Izenak eman behar dira otsailaren 5a aintzin ostatuan edo 05.59.54.25.19. zenbakira deituz.


Ahatekietan adituak eta arituak
Martiko S.A. Pol. Zalain, s/n. 31780 Bera, Navarra
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036 www.martiko.com

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA
Zurich Aseguruak
• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
Lan aholkularitza
• Nomina eta Aseguru Sozialak
Aholkularitza fiskala
• Errenta Deklarazioak, IVA....
Inmobiliaria
• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
Gestoria
• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak
Santiago 15 - Tlfnoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. km

ttipi ttapa
☎ (0033) 948635458

AZKAIN

# Lan zelaia handitzen ari da

## Postaren bereizketa egiteko zentroa eraikitzen ari dira orain



**Selauru hustea**

**Hilabetearen bigarren larunbatetan selauru huste bat antolatzen da herriko plazan. Hastapenean, herriko erakusleeri idekia izan zen, bainan gaur egun, leku guzietatik heldu dira. Gero eta jende gehiago biltzen du, batez ere udan.**

**Angela eta Xamo**

Donibaneko bidea hartzen delarik, nabarmen ageri da Lanzelai lan eskualdeak bere hedadura segitzen duela. Gan den urtean jadanik, Herriko Etxeak eta herriko eskulangile batzuk "Hamekak" artisauen tailerak estreinatu zituzten. Geroztik, aspalditik zerratua egona zen «Corysee Salome» lantegi famatua saldua izan da. Nagusi berriek, aldaketa egin ondoren, gimnaztika egiteko gela bat eta sagarnotegi bat ideki dituzte. Eta orai, eraikin berri bat ikusten ahal da pixkanaka altxatzen. Eraikin horrek Postaren bereizketa zentro berri bat errezibituko du ekaina orduko. Gaur egun, herriko postak Azkain, Senpere eta Sarako gutun eta paketen banaketa segurtatzen du; Donibaneko postak, Donibanekoak eta Ziburukoak. Eraikin horrekin, bi zerbitzio horiek elgarretaratuko dituzte.

### Eski ateraldiak

Azkaingo haurrek eskiatzeko parada izanen dute laster, Herriko Etxeak bi ateraldi antolatzen baititu heldu diren otsailaren 12an eta martxoaren 12an. Izenak eman behar dira hain bezain fite Laurent Albistur jaunari, 0618620206 zenbakian. Ateraldiaren prezioa: 20 euro.

### Bollendorf

Urtero bezala, «Les amis du jumelage» elkarteak bidaia antolatzen du Bollendorf herrira, otsailaren 4tik 12arte. Egitarau aberats bat proposatua izanen zaie, eta hango ihauterietan parte hartuko dituzte gan den urtean egin zuten bezala.

### Kirol

Errugbi taldeak sasoin eder bat egiten du aurten. Bat baizik, matxa guziak irabazi ditu orain arte. Suhar honetan segitzen baldin badute, pentsatzen ahal dugu txapela erreski lortzen ahal dute errubilariek.






**«Hamekak» eskulangileen tailerak eta Postaren bereizketa zentro berria.**

ARTEKARI
TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
LESAKA:
• Astelehenetik ortziralera, 9:00etatik 15:00etara
• Asteazkenetan 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 71 • Tfnoa: 948 63 70 50
amaia@artekari.com
BURLATA:
ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 948 133328 Faxa: 948 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
pabri@artekari.com
Langile Autonomoak
Nekazariak eta mendi-langileak
Nominak eta Aseguro Sozialak
Lan-kontratuetarako laguntzak
Enpresa berri ezberdinen sortzea
Diru-laguntza ezberdinak
Kontabilitateak
IVA eta IRPF
Errenta aitorpenak
Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
Berdintasun planak eta aurrekontuak

bentamiguel
Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran
Ibardingo Lepoa • ✆ 948 631209

SENPERE

# 5.242 lagun bizi dira herrian azken zenbaketaren arabera

Senpertar ainitzek sostengua erakutsi dio Euskal Herriko Laborantza Ganberari





ARGAZKIAK: STUDIO DE LA NIVELLE

**Gan den abenduaren 12an eta 17an, 2004an 65 urte eta 20 urte bete zituzten senpertarrek biltzarrak egin zituzten Boneteian eta Txikitun ostatuan.**

**Franck DOLOSOR**

Azken zenbaketaren arabera, 5.242 pertsona bizi dira Senperen. Duela guti, Herriko Etxeak herritarren zenbaketa egin du Frantziako estatuak banatzen dituen laguntzak handiagoak izateko bertzeak bertze.

### *Laborantza Ganbera*

Ipar Euskal Herriko laborantza ganbera egia bihurtu da berriki Ainhize-Monjolosen (Nafarroa-Behera). Momentuz ez du ezagupen ofizialik izanen bainan ELB sindikatutik hurbil den egitura hori lanean ariko da laborarien aferak kudeatzeko eta laguntzeko. Badira 20 urte ELBk Iparraldeko laborantza ganbera sortzea galdetzen zuela, bere ustez, Paueko ganberak ez baititu kontuan hartzen euskal laborantzaren berezitasunak. Inaugurazioak interes handia piztu zuen Pirineo-Atlantikoetako prefetak mehatxuak egin baitzituen egitura alternatibo huntako sortzaileen kontra, bere ustez, legez kanpokoa baita.

Dena den, Senperealdeko hautetsi eta herritar ainitzen sustengua izan du elkarte berri hunek. Andere auzapeza eta zonbait herriko kontseilarik parte hartu zuten egitura hunen inaugurazioan. Christine Bessonart auzapezak dio deusik ez duela gelditzen zerbaitetan zinez sinesten duelarik. Ikamikak izan ditu janeko prefetarekin Batera plataformari diru laguntza bat emateagatik bainan bere ustez ez da beldurtu behar Laborantza ganbera bezalako proiektuak lagundu behar direlakotz. Bessonart-en arabera Parisek erantzun bat eman behar zuen aspalditik laborarien galdereri. Eskualdeko bertze hautetsi batzuek ez dute batere ideia bera. Daniel Poulou Lapurdiko diputatuak dio ganbera berriak itxura politikoegia duela. Bere ustez, laborariek denbora gehiago egon behar zuten laster SUAT egitura sortuko baita euskal laborantza laguntzeko baliabide haundiekin. FDSEA sindikatuak SUATaren baitan nahiago du lan egin eta beraz ez du parte hartuko ELBko zonbait kidek sortu duten Euskal Herriko Laborantza Ganberan.

### *Europako konstituzioa*

Europako konstituzioari bai erratea deitu du UMPk Ibarrungo Inharrea baserrian ospatu zuen bestan. Frantziako estatuan gai huni buruzko herri galdeketa noiz eginen den ez da oraino argi baina eskuindarren ustez baia erran beharko da Europak urrats haundi bat egin dezan.









# EZKONTZAK

**Xabier Mitxelena Irizar** eta **Maider Lekuona Sierra**, Berakoa eta Irungoa, urtarrilaren 15ean.

**Nikolaos Papandroulakis** eta **Maria Uxue Azpiroz Lasarte**, Sitia (Grezia) eta Leitzakoa, urtarrilaren 7an.

**Santiago Ubiria Maritorena** eta **Maria Izaskun Garmendia Tapia**, Lesaka eta Irungoa, urtarrilaren 8an.



**Angel**
**ARTIEDA TELLETXEA**
**Beran hil zen 2005eko urtarrilaren 19an, 76 urte zituela**

*Beti irrifarrea zenuen lagunmin*
*gauza denen gainetik aitzinerat ekin*
*bizitzari helduaz gogo guziekin*
*indar hau utzi duzu betiko gurekin*
*maite izan zaitugun familiarekin.*

**BERAKO FAMILIA**



# SORTZEAK

**June Bengoetxea Zubieta**, Irungoa, urtarrilaren 16an.

**Beñat Apezetxea Apezetxea**, Goizuetakoa, urtarrilaren 1ean.

**Xabier Etxeberria Bravo**, Berakoa, abenduaren 28an.

**Mendia Zubieta Iturria**, Berakoa, abenduaren 29an.

**Iban Nuñez Perez**, Berakoa, urtarrilaren 2an.

**Andoni Telletxea Apeztegia**, Berakoa, abenduaren 31n.

**Joana Sagastibeltza Zabaleta**, Leitzakoa, abenduaren 28an.

**Maria Sagastibeltza Zabaleta**, Leitzakoa, abenduaren 28an.

**Anne Urrutia Azkarraga**, Azpilkuetakoa, abenduaren 31n.

**Nerea Dagerre Jaurena**, Elizondokoa, urtarrilaren 1ean.

**Kattalin Arraztoa Garbalena**, Gartzaingoa, urtarrilaren 3an.

**Jone Lertxundi Chacón**, Elizondokoa, urtarrilaren 5ean.

**Aritz Bikondo Arretxea**, Iruritakoa, urtarrilaren 7an.

**Joseba Bidegarai Iturralde**, Iruritakoa, urtarrilaren 11n.

**Violaine Madden**, Sarakoa, urtarrilaren 6an.

**Elodie Azarete**, Sarakoa, abenduaren 28an.

**Kenneth Abuin Osamede**, Donamariakoa, abenduaren 22an.

**Mikel Fernandez Arotzena**, Arantzakoa, abenduaren 2an.

**Haritz Arenas Etxeberria**, Arantzakoa, abenduaren 11n.

**Eñaut San Juan Taberna**, Arantzakoa, abenduaren 13an.

**Mikel Saizar Goikoetxea**, Aresokoa, abenduaren 23an.



# HERIOTZAK

**Carlos Goñi Etxaide**, Zugarramurdikoa, urtarrilaren 10ean, 56 urte.

**Maria Azkarraga Maritorena**, Zugarramurdikoa, urtarrilaren 19an, 60 urte.

**Ramon Etxenike Iribarren**, Amaiurkoa, abenduaren 31n, 78 urte.

**Francisco Altzugarai Altzugarai**, Berakoa, abenduaren 31n, 77 urte.

**Ana Alduntzin Juanena**, Leitzakoa, urtarrilaren 1ean, 78 urte.

**Jose Ramon Rodriguez Fernandez**, Leitzakoa, abenduaren 31n, 65 urte.

**Jesusa Inda Jauregi**, Urdazubikoa, urtarrilaren 2an, 95 urte.

**Salvador Apeztegia Petite**, Doneztebekoa, urtarrilaren 2an, 88 urte.

**Francisco Arregi Elorga**, Doneztebekoa, urtarrilaren 8an, 84 urte.

**Angel Taberna Arozamena**, Berakoa, urtarrilaren 9an, 76 urte.

**Juan Bautista Aleman Juanikotena**, Elizondokoa, urtarrilaren 10ean, 80 urte.

**Petra Etxegarai Etxart**, Arraiozkoa, urtarrilaren 10ean, 77 urte.

**Juan Altzuguren Mikelperizena**, Berakoa, urtarrilaren 10ean, 83 urte.

**Maria Concepcion Lasarte Hernandorena**, Zubietakoa, urtarrilaren 10ean, 82 urte.

**Caya Gonzalez Saenz**, Elizondon, urtarrilaren 13an, 83 urte.

**Primitivo Errandonea Altzuri**, Arantzakoa, urtarrilaren 13an, 79 urte.

**Javier Agirre Iratzoki**, Berakoa, urtarrilaren 14an, 74 urte.

**Elvira Picó Rodriguez**, Elizondokoa, urtarrilaren 17an, 94 urte.

**Antonia Amiama Aranburu**, Doneztebekoa, urtarrilaren 17an, 94 urte.

**Micaela Indakotxea Ezkurra**, Elgorriagakoa, urtarrilaren 17an, 92 urte.

**Maria Soledad Olazar Iriarte**, Berroetakoa, urtarrilaren 17an, 90 urte.

**Angel Artieda Telletxea**, Berakoa, urtarrilaren 19an, 76 urte.

**Maria Caballero Marzol**, Aresokoa, abenduaren 25ean, 86 urte.

**Bautista Eraso Aizagirre**, urtarrilaren 18an, 79 urte.




ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

**Migel Mari URRUTIA** *Saldiasko erremontelaria*

## DATUAK...

- **Binakako erremonte txapelketaren finala irabazi zuen urtarrilaren 15ean Migel Mari Urrutia saldiastarrak, aurrean Zeberio II lagun zuela.**
- **Urrutiak 21 urte bakarrik ditu eta oraindik ez ditu bi urte egin profesionaletan, baina pixkanaka lekua egiten ari da handienen artean.**
- **Sakea da bere armarik zitalena eta «errebotearekin ere kontent nabila». Binaka irabazi ondotik, ez du bere burua banakako txapelarekin ikusten: «Hori salto handia da! Oraingoz estelarretan muturra sartu nahiko nuke».**

# «Txapel guziek ilusioa egiten didate, denak izerdia kostata irabaziak dira»

Aitor AROTZENA

Patxi Zeberioren bikotea izanik, hasieratik faboritoen zerrendan sartu zituztela aipatu digu Migel Mari Urrutiak. Baina beretzat lehen txapelketa handia zenez, zalantzak zeuden horrelako konpromisoetan eman zezakeen mailari buruz. *«Beste bikoteek urteak dituzte goi mailan eta ni gaztea naiz, horregatik ez zitzaidan iruditzen faborito ginenik, baina azkenean irabazi!»*. Partidaren hasieran ez zuen Altuna gainditzea lortu, baina gero partidan sartu eta bederatzi tantu sakez egin zituen.

22 urte beteko ditu maiatzean eta duela bi urte eskas debutatu zuen profesionaletan Saldiasko atzelariak. Orduko Urrutiatik gaur egunekora badira aldaketak: *«Denean zerbait hobetu dut: sakea, segurantza, pilota gutxiago galdu, hobekiago kokatu, jokua eta maila pixko bat hobetu dudala iruditzen zait. Hasieran partidan sartzea kostatzen zitzaidan, korredoreak somatzen nituen, jendearen buila… Orain ohitu egin naiz eta ez ditut entzuten ere!»*.

**«Denean zerbait hobetu dut: sakea, segurantza, pilota gutxiago galdu, hobekiago kokatu, jokua eta maila pixko bat hobetu dudala iruditzen zait»**

Binakako txapel ofiziala izan da, noski, Urrutiak irabazi duen handiena eta ilusiorik handiena egin diona, baina azken urte erdia batez ere emankorra izan da sarietan: *«Lehenbiziko txapela San Ferminetakoa izan zen, Zeberio I.arekin. Gero, Larrearekin Kasino Kursaal irabazi nuen, txapelketa garrantzitsua. Altuna II.arekin Huarteko txapelketa irabazi nuen eta Ezkurrarekin Eguberrietako txapelketa. Orain txapelketa ofiziala irabazi dut Zeberio II.arekin eta pozik! Denak ilusio handia egiten didate, denak izerdia kostata lortuak dira. Azkenekoa garrantzitsuena da, fama handikoa, baina ilusioa denak!»*.

Zenbait komunikabidetan etorkizuneko atzelaria bera izanen dela agertu da eta lore horiek poz handia ematen diote Urrutiari. Txapelketako finalerdian, gainera, bere irakasle izandako Lizaso menpean hartu zuen: *«Lizaso Lizaso da eta beldur pixko batekin atera nintzen jokatzera. Bera ikaragarri aritzen da, baina azkenean irabaztea lortu genuen eta poza! Horrelako pilotari bati irabaztea…»*.

### Erremontea frontoi laburrean

Galarreta eta Uharteko pilotaleku luzeetatik kanpo, azken aldian Labriten eta frontoi laburretan ere jokatzen hasiak dira. Hori ez zaio arrotz egiten Urrutiari, Saldiasko pilotalekuan ere aritzen baita lagunekin. *«Gustora aritzen naiz, joku biziagoa da eta materialmotelagoarekin emaitza polita ematen du… Erreflejo eta abiadura gehiago behar dira»*.

PILOTA


ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA
**Bortzirietako eskuz banakako txapelketaren finalistak ageri dira argazkian, gustora beraien txapel eta sariak eskuratu ondotik.**

# Bortzirietako eskuz banakako txapelketaren finalak jokatu ziren

## Zortzi partida jokatu ziren Igantziko pilotalekuan urtarrilaren 16an

A.A.

Urtarrilaren 16an jokatu ziren Bortzirietako laugarren eskuz banakako txapelketaren finalak Igantziko pilotalekuan. Guzira 87 pilotarik hartu dute parte txapelketan, ttikien eta haurren kategorien artean eta bertze 9 pilotarik pixko bat beranduago hasi zen kadete mailan, guzira 96 pilotari.

Ttikien mailan, Lesakako Arkupeko Ander Legasak 16 eta 14 irabazi zion, Igantziko Biltokiko Oihan Canabalen kontra, partida gogorra eta lehiatua eskaini ondotik.

Umeak B mailan, Berako Gure Txokoako Ander Errandonea 16 eta 7 ongi nagusitu zitzaion Igantziko Biltokiko Joseba Bertizi.

Umeak mailan, Lesakako Arkupeko Unai Zamorano Igantziko Biltokiko Unai Telletxea baino gehiago izan zen eta 16 eta 4 irabazi zion.

Kimuak B mailako finalean, Igantziko Biltokiko Adur Yanci Berako Gure Txokoako Aitor Escaguesen kontra aritzekoa zen, baina azken honek ohatzean gelditu behar izan zuen sukarrarekin. Bere ordez, Arantzako Markel Jorajuria aritu zen. Adur Yancik 18 eta 9 irabazi zion Markel Jorajuriari.

Kimuak mailan, Lesakako Arkupeko Mikel Maiak 18 eta 12 irabazi zion Igantziko Biltokiko Eneko Telletxeari. Emaitzak erakusten duena baino borroka handiagoa izan zen partidan eta tantu ikusgarriak ikusi ziren.

Haurrak B mailan, Berako Gure Txokoakoak izanen ziren bi finalistak: Alex Eizagirre eta Xamal Vazquez. Final guzietako partidarik orekatuena eskaini zuten eta azkenean Xamal Vazquezek 18 eta 17 irabazi zion Alex Eizagirreri.

Haurrak mailan, Igantziko Biltokiko Beñat Txoperenak 18 eta 8 irabazi zion Lesakako Arkupeko Xabier Susperregiri.

Kadete mailan, azkenik, Igantziko Biltokiko Imanol Goienetxek 18 eta 3 irabazi zion Etxalarko Altxatako Iurgi Berruetari.

Finalen ondotik, sariak eman zitzaizkien txapelketan parte hartu duten pilotari guziei eta ondotik, pilotari, guraso eta erakusleek bazkaria izan zuten La Villa jatetxean.

Binakako eta banakako txapelketak jokatu ondotik, lanean segituko dute Bortziriak pilota elkarteko pilotari gaztetxoak. Honela, Belatek eskualdeka antolatutako binakako txapelketan parte hartzen hasiak dira, baita Zizurren jokatzen den lau terdiko txapelketan.


Legasa eta Canabal.


Errandonea eta Bertiz.


Zamorano eta Telletxea.


Yanci eta Jorajuria.


Maia eta Telletxea.


Vazquez eta Eizagirre.


Susperregi-Txoperena.


Berrueta eta Goienetxe.

# AGENDA egunez egun

## ZINEMA

### LEITZA

**Urtarrilaren 28 eta 30ean** «El bosque» filmea eskainiko dute zineman, ostiralean 22:30etan eta igandean 19:30etan.

### BERA

**Urtarrilaren 30ean** «Supertramps» haurrentzako filmea eskainiko dute Kultur Etxean 17:00etan.

## ERAKUSKETAK

### LESAKA

**Urtarrilaren 10etik 30era** Martin Goikoetxea «Goiko» argazkilariaren erakusketa Beti Gazte elkartean.

## SOLASALDIAK

### BERA

**Urtarrilaren 28an** «Bazaudete» liburuaren aurkezpena eginen du Hasier Larretxea idazleak Kultur Etxean 19:30etan.

### LESAKA

**Urtarrilaren 28an** «Palestina lurralde okupatua» solasaldia eskainiko dute Beatriz Aranak eta Askapenako kide batek Arranon 20:30etan.

### DONEZTEBE

**Urtarrilaren 29an** Movimiento Bolaren monologoak zinean, 19:00etan, Gazte Burrunbak antolatuta.

## KONTZERTUAK

### LESAKA

**Urtarrilaren 27an** helduen kontzertua, Musika Eskolak antolatua.

## TELEBISTAKO TXOKOA





ETXALARKO MOKORREKO BORDATIK

# Otordu biologikoa prestatzen ortziraleko erreportaian

Behi eroen gaitza, barazki transgenikoak, janari biologikoa... egunero aditzen ditugun solasak dira baina jakin, zenbateraino dakigu zer erran nahi duten? Elikaduran adituek diotenez elikagai eta janariei ez diegu behar duten garrantzia ematen. Gaizki jaten dugu eta gehienetan ez dakigu ahora sartzen duguna zer den. Gauza jakina da azkeneko mende honetan barazkiek eta haragiek ikaragarrizko aldaketa izan dutela. Etxe inguruko supermerkatuetara inguratzea bertzerik ez dago hori ikusteko: sagar guziak tamaina, kolore eta forma berekoak dira. Tomatea, berriz, betidanik udaberriko eta udako jakia izan dena, gaur egun urte osoan jaten ahal dugu. Adituek diotenez hemengo nekazariek beti landu dituzte barazkiak modu ekologikoan. Baina XX. mendean lur sail haundiak lantzen hasi zirenetik, pestizidak, hormonak eta nahasketa transgenikoak eguneroko gauza bihurtu dira. Horren bertze aldea ezagutzeko Etxalarko Mokorreko Borda baserrira hurbildu da Joseba Olagarai lankidea eta janari biologikoaz arituko zaigu ortziraleko erreportaian. Jone Arrospideren laguntzaz otordu biologiko bat nola prestatzen den erakutsiko digu. Ez galdu, ortziral honetan, Ttipi-Ttapa telebistan.

## DVD




**«Kutsidazu bidea, Ixabel»**

**GORRINGO**

Ez da ohikoa Euskal Herrian kultura esparrumo gertaera batek gizartean ospea eta entzutea lortzea, fenomeno sozialaren kategoria hartzeraino, batez ere euskaraz eta euskaldunentzat egina dagoenean. «Kutsidazu bidea, Ixabel» izan da azken urteotan kasu bitxi eta pozgarri horietako bat. Joxean Sagastizabalek bere liburua argitaratu zuenean, arrakasta handia lortu zuen irakurleen artean. Era berean, Gorringo taldeak obra antzerkira eraman duelarik, harrera ezin hobea izan du Euskal Herri osoan. Eta ez da kasualitatea izan, gure artean euskaldun berriek euskarari aurre egin eta euskaraz bizitzeko egiten dituzten ahaleginak eta pairatzen dituzten sufrikarioak bikain jasotzen baititu antzezlan honek, umorearen piper eta gatzarekin. 100.000 lagun inguruk ikusi dute antzezlana.

## BASERRIA

Datu Iturria: Nafarroako Gobernua
(Urtarrilaren 7tik 14ra bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo): 36,00 € (=)

**Zerri gizena**
1,005 € kiloa. (=)

**Zerramak:**
0,550 € Kg/bizirik. (=)

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3, 42 (=)
**1.koa** 3,22 (=)
**2.koa** 3,09 (=)
**Urruxak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,52 (=)
**1.koa** 3,35 (=)
**2.koa** 3,16 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Aretze mestizoak:**
urruxak 222,00 (=)
idixkoak 245,00 (=)

**Aretze nabarrak:**
urruxak 180,00 (=)
idixkoak 205,00 (=)
**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 2,96/3,01
Zaldi-behorrak: 1,76/1,96
**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 5,10 / 5,40
8-10 kilokoak: 4,00 / 4,50



euskaraz ere,

NATURALTASUNEZ

Euskadiko Kutxan euskaraz arreta ematea ez da beste edozein zerbitzu.
Gure lan egiteko modua da.

*Zurekin elkarlanean*

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

# MERKATU TTIKIA

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da.
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).
7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!


**ETXEBIZITZAK**
**101.** Saldu
**102.** Erosi
**103.** Errentan emateko
**104.** Errentan hartzeko
**105.** Etxe konpartituak
**106.** Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
**107.** Saldu
**108.** Erosi
**109.** Errentan emateko
**110.** Errentan hartzeko
**111.** Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
**112.** Saldu
**113.** Erosi
**114.** Errentan emateko
**115.** Errentan hartzeko
**116.** Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
**201.** Hargin/Igeltseroak
**202.** Pintoreak
**203.** Elektrizistak
**204.** Iturginak
**205.** Zurginak
**206.** Mendi lanak
**207.** Garraioak
**208.** Bertzelakoak

**LANA**
**301.** Eskariak
**302.** Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
**401.** Eskaintzak
**402.** Akademiak

**MOTORRA**
**501.** Salerosketak
**502.** Tailerrak

**ANIMALIAK**
**601.** Emateko
**602.** Salerosketak
**603.** Klinikak

**DENETARIK**
**701.** Galdu / aurkituak
**702.** Salerosketak
**703.** Bertzelakoak

**HARREMANAK**
**801.** Agurrak



**ADOS**

• **ELIZONDO.**
-2. eskuko pisuak salgai.
- Eraikuntza berriko pisuak salgai.
• **DONEZTEBE.** - Eraikuntza berriko eta 2. eskuko pisuak salgai.
- Lokal komertzial pare bat salgai eta errentan emateko.
• **BERA.** -Pisu pare bat salgai.
-Terrenoak erosten dira.
• **LESAKA.**
- 2. eskuko pisu pare bat salgai.
• **ARANTZA.** - Etxe bat salgai.
**BAZTAN-BIDASOAN**: baserri, borda, etxeak, pisuak eta lur eremuak salgai.
948 451 841 / 948580705 / 607 978 656


## ETXEBIZITZAK

### 101 Saldu

**ERRATZU (Baztan). Laster** Babes Ofizialeko Etxebizitzak (VPO) eraikiko dira. Promociones Lindutx Baztan. ☎ 676 509312.

**BERA.** Kiroldegiaren ondoan pisua salgai. Hiru logela, sukalde eta komuna berrituak, egongela eta trasteroa. Bajera ere badu nahi izanez gero. ☎ 661 931727.

## ETXEBIZITZAK

### 103 Errentan eman

**LESAKA.** Apartamentua errentan ematen da, pertsona bat edo bi pertsonendako gehienez. Kalefakzioarekin. ☎ 675 714360.

**LEITZA.** Pisua errentan emanen nuke. Igogailuarekin. ☎ 948 510277.

**BERA.** Pisua errentan eman nahi da. ☎ 600 767222.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 Errentan eman

**LESAKA.** Txirula loredenda errentan ematen da. ☎ 948 627542.


**LESAKA**
**Txirula** loredenda **errentan** ematen da.
Tel.: 948 627542


## LURRAK/ORUBEAK

### 113 Erosi

**LESAKA.** Eraikitzeko terrenoa erosi nahi da. ☎ 675 714360.

## ZERBITZUAK

### 205 Zurginak


ARANTZA ZURGINDEGIA
Jose Miguel Errandonea
Klase guztietako zurgin lanak
Deitu zazu ☎ 948-634068 • ARANTZA


## ZERBITZUAK

### 208 Bertzelakoak


**ADOS abokatuak**
**Zerbitzu juridikoak**
Santiago karrika 47
ELIZONDO
Tel.: 948 580705


## LANA

### 301 Eskariak

**Emakume** peruarra, paperekin, eskaintzen da etxeko lanak egiteko. ☎ 618 969461.

**Neska euskalduna** eskaintzen da maiatzetik aurrera kamarera edo bertze edozein lan egiteko. ☎ 650 772171.

## LANA

### 302 Eskaintzak

**IRUÑA.** Gozotegi batean langile bat behar da. ☎ 629 424577.

**Pertsona bat behar da** zurgindegi batean lanean aritzeko. Esperientzia baduhobe. ☎ 948 451906-689 531012.

**Ileapaindegi batean** lan egiteko ileapaintzailea behar da. Posible bada esperientziarekin. ☎ 615 358824.

**BERA. Toki-Ona kiroldegian** atezain, mantenimendu eta garbiketa lanak egiteko pertsona bat behar da, astebukaeretan eta astez ordu batzuk lan egiteko. Euskara jakitea beharrezkoa da. Interesatuek kurrikuluma bidali helbide honetara: *Toki-Ona Kiroldegia; Julio Caro Baroja, 2; 31780 Bera.*

**Igeltsero** autonomo bat behar da lanean aritzeko. ☎ 607 750425.

**1200** euro hilabetean, administrari laguntzaile lana egitez. Abudo sartzeko. Graduatuarekin aski. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Mantenimendua**, soldatzaileak, elektrizistak, zurginak, iturginak. Erakunde publikoetan lanpostuak libre. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Laborategia.** Postu libreak NUPen. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Etxezainak**, atezainak, zaindariak. Udaletxetan abudo sartzeko. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Haurtzaindegi publikoak**, haur eskolak. Bete behar dute: haur zaintzaileak, hezitzaileak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Sukalde laguntzailea.** Sukaldariak. Osasunbidean abudo sartzeko. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Telefonistak**, harreragileak, ordenantzak. Erakunde publikoetan lasnpostu libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Peoiak**, igeltseroak. Udaletxetan abudo sartzeko. In-


**ADOS**

**ELIZONDON ADOS INMOBILIARIA**

HELBIDEA: SANTIAGO KARRIKA, 47
TELEFONOA: 948 580705
ORDUTEGIA:
astelehenetik ostiralera
goizez 9:30 - 13:30;
arratsaldez 16:30 - 19:30
larunbatetan
9:30etatik 13:00etara
DONEZTEBEN BETIKO LEKUAN SEGITZEN DUGU:
Plaza 8 • Tel: 948451841
Correo electrónico: ados@ados-inmobiliaria.com
WEB: www.ados-inmobiliaria.com



**Lan bila zabiltza?**

**LAN ESKAINTZA**
**ETXEZAINAK**
Atezainak, zaindariak. Udaletxetan abudo sartzeko.
Informazioa doan.
**HAURTZAINDEGI PUBLIKOAK**
Haur eskolek bete behar dute: haur zaintzaileak, hezitzaileak.
Informazioa doan.

**LAN ESKAINTZA**
**SUKALDARI LAGUNTZAILEA**
Sukaldariak. Osasunbidean abudo sartzeko.
Informazioa doan.
**NAFARROAKO FORUZAINGOA**
85 postu libre. Udaletxetan abudo sartzeko.
Informazioa doan.

Presta zaitez. Informazioa dohan.
**948 199 596**

formazioa doan. ☎ 948 199596.

**Nafarroako Foruzaingoa.** 85 lanpostu libre. Udaletxetan abudo sartzeko. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Gidariak.** Abudo sartzeko: udaletxetan, Nafarroako Gobernuan. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

## MOTORRA

### 501 Salerosketak

**Volkswagen California** (Westfalia ekipamendua) 2.4D salgai, 1992koa. 210.0000 km. Hagitz egoera onean. Kalefakzio estazionarioa eta programadorea. Eguzki plakak. Ralla+toldoa. Bizikletentzako «baca». 14.000 euro (negoziagarriak). ☎ 635 755162 (Jon).



**Renault Laguna** 2.0 autoa salgai, NA-AK matrikuladuna. 175.000 km. ☎ 647 417700.

**Citroen Saxo** dieseia, 3 atekoa salgai, NA-AW matrikuladuna. 3.600 euro. ☎ 649 729665.

**Ford Mondeo** TD autoa salgai. NA-AP matrikuladuna. Haize egokitua, itxiera zentralizatua eta kristala igotzekoa elektrikoa. Egoera onean. ☎ 626 451956.

**Quad motoa** salgai. 350 cc, extrekin eta egoera onean. ☎ 650 064912.

**Renault Express** 1900 Dieselasalgai, 8 urtekoa. ☎ 607 227304 (gauetan).

**Iveco Turbodayli** 4910 furgoneta salgai. NA-AM matrikuladuna. Egoera onean. ☎ 678 860244 - 647 773124.


BORTZIRI
UNSION ANAIAK
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891
Faxa: 948 637 511

REMONTKar
INPORTAZIO IBILGAILUAK
AUDI
BMW
MERCEDES
VOLKSWAGEN
ETA BERTZE MARKAK
www.remontkar.com
eskatu informazioa
info@remontkar.com

SAMPI ARAGON
ZOANSA
Lur orotariko ibilgailuak (4x4), furgonetak eta autoak erosten ditugu.
Eskura ordaintzen dugu

MENDAUR MOTOR
✆ 948 450333 • DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak:

BOAN TAILERRA
AUTOEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
☎ 948 63 06 23 • BERA

GANIX
Tailerra
BERA
IBILGAILUEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua


**Suzuki Santana** salgai. Egoera onean. ☎ 943 631936 (deitu gauez).

## ANIMALIAK

### 601 Emateko

**Katukume zoragarriak** emateko, hiru hilabetekoak. ☎ 948 637213.

## ANIMALIAK

### 602 Salerosketak

**Hamar ardi-kupo** erosiko nituzke. ☎ 635 201059 (18:00etatik aitzinera).

**Hiru urteko sabueso** zakurra salgai, koneju ehizakoa. ☎ 948 451504.

**GOIZUETA.** Hiru betizu gazte beren migekin salgai. ☎ 680 613474.

**Behorra emari** salgai, hispano-arabe arrazakoa eta hamar urtekoa. **Zortzi hilabeteko behoka** hispano-anglo-arabe hiru odolekoa salgai. Gozoak eta biek oso merke. ☎ 646 395609.

## DENETARIK

### 702 Salerosketak

**Eskuadradora tupi** salgai. ☎ 680 986836.

**Warwick Extreme baxu elektrikoa** saltzen dut. 5 soka, pieza bakarrekoa eta pastillak bikoizki aktibatuak ditu. Prezioa: 1.200 euro, negoziagarria. ☎ 687 401212.

**Haritz amerikanoak** saltzeko, bi eta hiru udakoak. ☎ 948 580870.


ARRIET
haur eta gazteen arropadenda
NEGUKO ARROPETAN
%40EKO DESKONTUA
UDABERRIKO ARROPA BERRIETAN
%10EKO DESKONTUA
Legia, 45 • BERA • Tfnoa: 948 63 05 50

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA
BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAK BERRETSI EGITEN DU BERA, LESAKA, ARANTZA, ETXALAR ETA IGANTZIKO UDALEK BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIAREN ALDE ONARTURTAKO MOZIOA:
Nafarroako Gobernuak, bertzeak bertze, euskaltegiei emandako dirulaguntza %66 murriztu du 2005eko aurrekontuan. Horrek IKAko Bortzirietako euskaltegiaren bideragarritasun ekonomikoa kolokan jartzen du. Euskaltegi honek 20 urteko ibilbidea egin du helduen euskalduntze-alfabetatzean eta bere jardunean aitzinera segi dezan babesa eskaintzeko asmoa dute Bortzirietako Udalek. Era berean, alderdi politikoei eta hezkuntza kontseilariari dei egiten diete aurrekontuen gainean IKA eta AEKak helarazitako proposamena aintzat hartzeko.
Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakaria
Vicente Arocena Burutaran

KULTURKARI
PUBLIZITATE AGENTZIA
Inprimaketa zerbitzua
DISEINU ETA PUBLIZITATEAN ZERBITZU INTEGRALA
Arkubeta 12
31760 ETXALAR
(0034) 948 63 54 58
kulturkari@hipi.net



ENDANEA
HAZTEGIA

Zatoz loreak ikustera, gustura aterako zara

# ENDANEA MINTEGIAK
# INGURUKO LORE MINTEGIRIK EDERRENA

## Fruitondo eta larrosak aldatzeko sasoia

Larrosak 40 kolore, estilo eta usai ezberdinetakoak
Fruitondo txertatuak aukeran,
60 klase ezberdin:
Sagarrak (jatekoak eta sagardokoak),
udareak, gereziak, muxikak,
briñoiak, kiwiak...
Fruitondoak neguan zaintzeko
xomorroen aurkako produktuak

OPARIAK: Zentroak, lore sortak
etxera, lantegira, ospitalera...
eramaten dira
telefonoz eskaera eginda.




**ESKAINTZA BEREZIA: Primulak 0,90€ • Asteartero - %10 landaretan**

Ordutegia:
Astelehenetik larunbatera
9:00 - 20:00
Asteburu eta Jai egunetan
9:00 - 13:30
Jaizubia Auzoa, 40
HONDARRIBIA
Tfnoa: 943 641710
www.endanea.com







# ORDOKI ALTZARIAK



## ESTILO UGARIKO MOBLEAK

kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA




ERAKUSKETA: Bittiria 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31770 LESAKA

# IKASI BIRZIKLATZEN
*zure esku dago*



## etxeko hondakin bereziak eta sukaldeko olioaren bilketa

# zerbitzu berria!!

**2005eko otsailetik aurrera**

**SUKALDEKO OLIOArekin batera**

**ETXEKO HONDAKIN BEREZIAK bilduko ditugu:**

**(Pinturak, esmalteak, lixibak, ibilgailuen bateriak, iragazkiak, pestizidak, igerilekuko produktuak, esprai enbaseak...)**




Hondakinen bilketa hobetzeko asmoarekin, 2005eko otsailetik aurrera zerbitzua berria jarriko da martxan:

Horretarako hurbilduko zara herriz herri ibiliko den ibilgailura.

Egunak eta orduak banatuko zaizun egutegian agertzen dira.

**Eskura, toki erosoan gordetzen baduzu, ez zaizu atzenduko.**

Egutegi horrek zenbaki bat darama, ondoko zozketa honetan parte har dezazun:

**SARIA:** IRAILEAN, 2 LAGUNENDAKO ASTE BATEKO BIDAIA KANARIASERA.
**ZOZKETAREN DATA:** 2005-06-30EAN.
**LEKUA:** MALERREKAKO MANKOMUNITATEA (DONEZTEBE).
**ORDUA:** ARRATSALDEKO 7:00ETAN.

Hilabeteko epean ez bada zenbaki saritua agertzen, berriz zozketatuko da.

Baztango Udala | Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatea | Malerrekako Zerbitzu orokorren Mankomunitatea | Nafarroako Gobernua

**TELEFONOAK**

Baztango Udala .................. 948 580 006
Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatea .................. 948 635 254
Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatea .................. 948 451 746